

ZUZENBIDE GRADUA

2022-2023 Ikasturtea

Itsas-zuzenbidearen erabilera Europar Batasuneko mugen kontrolean: begirada berezia gaur egungo migrazio egoerari Italiako Errepublikan eta Espainiar Estatuan.

Laida Cáceres García

Zuzendaria: Iker Barbero

Bilbon, 2023ko maiatzaren 15ean

LABURPENA: Europako migrazio-krisiak kolokan jarri ditu Europako erakundeak eta Estatu kideetako gobernuak. Europar Batasunak Mediterraneoan migratzaileen bizitzak salbatzen lan egiten duten gizarte-eragileak jazarri baditu ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak *Hirsi Jamaa and Others vs Italy*, eta *Sharifi and Others v. Italy and Greece* sententzietan argi adierazten du erreskatea bete behar juridikoa dela. Erreskate eta inmigrazioari buruzko Nazioarteko legedia, Europar Batasuneko legedia eta Italiako zein Espainiako legedian oinarrituz, Mediterraneoako migrazio-fenomenoari emandako erantzun errepresiboa aztertu nahi du lan honek. Zehazki, Italiak GKEekiko duen jokabide kriminalizatzailea eta gainerako estatu kideen lankidetzak eskasa aztertzen da, Europako mugak esternalizatzearekin eta migratzaileen giza eskubideak urratzearekin batera.

HITZ GAKOAK: Erreskate humanitarioa, giza eskubideak, GKEak, migratzaileak, migrazio-krisia eta mugen kanporatzea.

ABSTRACT: The European migration crisis has put the European institutions and the governments of the Member States in check. Although the European Union has persecuted the social agents that try to save the lives of migrants in the Mediterranean, the European Court of Human Rights (ECtHR), in its sentences *Hirsi Jamaa and Others v Italy*, and *Sharifi and Others v. Italy and Greece*, clearly states that rescue is a legal obligation. This dissertation is about analyzing the repressive response to the migratory phenomenon in the Mediterranean, based on international legislation, European Union legislation and Italian and Spanish legislation on rescue and immigration. Specifically, the paper analyzes the criminalizing behavior of Italy towards NGOs and the lack of cooperation from the rest of the Member States, together with the externalization of European borders and the violation of the human rights of migrants.

KEY WORDS: Externalization of borders, human rights, humanitarian rescue, Migrants, migration crisis and NGOs.

RESUMEN: La crisis migratoria europea ha puesto en jaque a las instituciones europeas y a los gobiernos de los Estados miembros. Aunque la Unión Europea ha

perseguido a los agentes sociales que trabajan en el Mediterráneo salvando las vidas de los migrantes, el Tribunal Europeo de Derechos Humanos (TEDH) en sus sentencias *Hirsi Jamaa and Others vs Italy*, y *Sharifi and Others v. Italy and Greece* señala claramente que el rescate es una obligación jurídica. En este trabajo se analiza la respuesta represiva al fenómeno migratorio en el Mediterráneo, en base a la legislación internacional sobre rescate e inmigración, la legislación de la Unión Europea y la legislación italiana y española. En concreto, se analiza el comportamiento criminalizador de Italia hacia las ONG y la falta de cooperación del resto de Estados miembros, junto a la externalización de las fronteras europeas y la violación de los derechos humanos de los migrantes.

PALABRAS CLAVE: Crisis migratoria, derechos humanos, externalización de fronteras, migrantes, ONGs y rescate humanitario.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	6
2. Inmigrazioaren eragina Mediterraneoko estatuen egoera sozio-politikoan. Italiako kasua.	11
2.1 Inmigrazioaren kudeaketa Italian ikuspegi juridiko-politikotik.	15
2.1.1 Italiako Errepublikaren 65.Kabinetea (2018-2021): Matteo Salviniren dekretuak.	16
2.1.2 Italiako Errepublikaren 68.Kabinetea (2022-): Meloni garaia.	18
3. Itsas erreskatearen araubidea	21
3.1 Nazioarteko Hitzarmenak	22
3.2 Europar Batasuneko araudia	26
3.3 Estatu kideen araudia: Italiaren eta Espainiaren azterketa berezia	28
4. Hausnarketa juridikoa	31
4.1 Itsas-zuzenbide administratiboaren erabilera mugen kontrolerako.	31
4.2 Zuzenbide penalaren bidez kriminalizatzea	33
4.3 Schengen espazioaren mugen kontrola.	35
4.4 Esternalizazioa	37
4.5 Estatu kideen lankidetzarik eza	38
4.6 Europaren jardunbidearen eragina etorkinen giza eskubideetan	41
5. Ondorioak	42
6. Erreferentziak	45
6.1. Bibliografia	45
6.2 Araudia	48
6.2.1 Nazioarteko Zuzenbidea	48
6.2.2 Europar Batasuneko Araudia	49
6.2.3 Italiako barne araudia	50
6.2.4 Espainiako barne araudia	51
6.3 Jurisprudentzia	52
6.4 Bestelako erreferentziak	52
6.4.1 Erakundeetako eta GKEen txostenak	52
6.4.2 Komunikabideetako argitalpenak	54

Antzinako grezieraz, gonbidatua izendatzeko erabiltzen den hitza eta atzerritarra
izendatzeko erabiltzen den hitza hitz bera dira: xénos.

George Steiner.

LABURDURAK

AAEE: Autonomia Erkidegoak

AG: Auzitegi Gorena

CEAR: Comisión Española de Ayuda al Refugiado (Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea)

CEAS: Common European Asylum System (Asilorako Europako Sistema Bateratua)

CONVEMAR: Convención de las Naciones Unidas sobre el Derecho del Mar (Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa)

EASO: European Asylum Support Office (Asiloari Laguntzeko Europako Bulegoa)

EB: Europar Batasuna

EBFT: Europar Batasuneko Funtzionamenduaren Tratatua

EBJA: Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

EK: Europako Kontseilua

EUAA: European Union Asylum Agency (EASO ohia)

EUREMA: Pilot Project for intra-EU Relocation from Malta (EB barruan birkokatzeko Maltako proiektu pilotua)

FRONTEX: Mugen eta Kostaldeen Guardiako Europako Agentzia

GKE: Gornberuz Kanpoko Erakundeak

IMO: International Maritime Organization (Nazioarteko Itsas Erakundea)

IOM: International Organization for Migration (Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea)

ISH: Itsas Salbamendu Humanitarioa

LO: Lege Organikoa

NBE: Nazio Batuen Erakundea

SALVAGE: International Convention on Salvage (Itsas Salbamenduari buruzko 1989ko Nazioarteko Hitzarmena)

SAR: Search and Rescue (Itsas Bilaketa eta Salbamenduari buruzko Nazioarteko Hitzarmena)

SOLAS: Safety Of Life At Sea (Itsasoan Giza Bizitzaren Segurtasunerako Nazioarteko Hitzarmena)

SPRAR: Sistema di Protezione per Richiedenti Asilo e Rifugiati (Asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak hartzeko sistema)

UNHCR: United Nations High Commissioner for Refugees (Errefuxiatuentzako Nazio
Batuen Goi Komisioa)

1. Sarrera

2020ko apirilaren 13an Aita Mari itsasontziak 44 migratzailearen bizia salbatu zuen erreskate operazio arrakastatsu baten ostean. Italiako portu batean lehorreratzeko eskaera egin zuten eta Italiako gobernuak Palermoko portua ireki zien. Erreskatatutako pertsonak lehorreratu ostean, Palermoko agintariek inspeksioa egitea erabaki zuten. Inspeksio honetan “hainbat irregulartasun tekniko eta operatibo” antzeman zituzten, eta, ondorioz, ontzia ibilgetu zuten¹.

Itsas Salbamentu Humanitarioa GKEak inspeksioan adierazitako akats guztiak konpondu dituela jakinarazi badu ere, Espainiako Gobernuaren Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministeritzak 2023an prozesu administratiboa hastea erabaki du. 2023ko urtarrilaren 27an Valentziako Itsas Kapitaintzak erreskate humanitarioko Aita Mari ontziari jakinarazi zion haren kontrako zehapen-espedientea ireki zuela Italian 2020ko maiatzean izandako inspeksio horrengatik. Hiru urteren ondoren, 'Aita Mari' erreskate-ontziak 60.000 eta 80.000 euro arteko isuna jaso dezake. Egoera honetan inplikaturik daude, alde batetik, Valentziako Itsas Kapitaintza, organikoki eta funtzionalki Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren mende dagoena Merkataritza Itsasketako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez; eta beste aldetik, Aita Mari itsasontzia. Aita Mari itsasontzia, “Itsas Salbamendu Humanitarioa” (ISH) deituriko Gobernu Kanpoko Erakunde euskaldunaren ontzia da, eta Mediterraneoan migranteen bizitzak zaintzen eta salbatzen dihardu.

Aita Mariren itsasontziari gertatutakoa Europako Estatuak GKEei jartzen dizkieten oztopoen kasu paradigmatico gisa har dezakegu baina ez da kasu bakarra. 2019ko maiatzean, Italiako agintariek hainbat astez konfiskatu zituzten Mare Jonio eta Sea-Watch 3 GKEen ontziak Italian erreskateak eta lehorreratzeak egin ostean,

¹ 2020ko maiatzaren 6ko Italiako Kostaldeko Guardiaren komunikazioa: *“Ikuskaritzak agerian utzi du Espainiako pabiloia duen ontzian irregulartasun tekniko eta operatibo batzuk daudela, tripulazioaren segurtasuna arriskuan jar dezaketenak, bai eta emandako laguntza-zerbitzuan ontzian egon diren eta etorkizunean erreskatatuak izan daitezkeen pertsonena ere. Hautemandako irregulartasunen ondorioz, eta irregulartasun horiek zuzendu arte, unitateari ibilgetze administratiboa egingo zaio”* (Guardia Costiera italiana 2020ko maiatzak 6).

atzerritarrak Italiako Estatuan modu irregularrean sartzen lagundu zituztela argudiatuz². Honen ondoren, 2019ko uztailan, Carola Rackete, “Sea Watch 3” itsasontziaren kapitaina, atxilotu zuten. 40 pertsona erreskatatu ostean, bi astetan zehar Europako estatuek ez zioten portu seguru bat eskaini pertsona horiek lehorreratzeko. Europako Estaturen erantzun eza ikusita, baimenik gabe Lampedusako portuan sartzea erabaki zuen (Nazioarteko Amnistia, 2019ko urtarrilak 17). Italiako Auzitegi Gorenak Italiako Gobernuak hartutako jarrera errepresibotik aldenduz, 2020ko urtarrilean ebatzi zuen atxiloketa ez zegoela justifikatuta eta erreskatea eta portuko sarrera itsasoko legeen arabera egin zirela³.

2019an ere, Open Arms itsasontziak Espainiako gobernuarekin arazoak izan zituen bere lan humanitarioa aurrera eramateko. Urtarrilaren 8an, Espainiako Sustapen Ministeritzak ez zion itsasontziari baimenik eman Libiako barne itsasora joateko eta ondorioz, Bartzelonako portuan egotera behartu zuten. Ekainak 27an, nabigatzera ateratzeko baimena lortu ostean, Merkataritzako Marinaren Zuzendaritza Nagusiaren abisu bat jaso zuen erreskate eta salbamentu operazioak aurrera eraman ez zitizan⁴.

Gobernuz Kanpoko Erakundeek salbamendu itsasontzietan trabak jartzea Europako Estaturen *modus operandi*-a bihurtu da azken urteetan. Europako estatu kideek mugak itxi dizkiete Mediterraneotik ailegatu diren migranteei. Honen adibidea da Italiako gobernuak ezarritako “portu itxien” politika. Mediterraneo itsasoko erreskate operazioak amaitutzat emateko migranteen lehorreratzea “leku seguru” batean egin behar da⁵. Leku seguru hurbilenak normalean Italiako portuak izaten dira baina azken urteetan Italiako gobernu ezberdinek Estatuko portuetan GKEen itsasontzietan

² “Testo Unico sull’immigrazione” 12.3.artikuluak: “(...) Testu bakar honetako xedapenak hausten dituen pertsona orori, atzerritarrak Estatuaren lurraldean garraiatzeagatik, edo garraioa sustatu, zuzendu, antolatu edo finantzatzegatik, edo Estatuaren lurraldean nazionala ez den edo bizileku iraunkorrerako eskubiderik ez duen pertsona legez kontra sartzen saiatzeko beste egintza batzuk gauzatzegatik, sei urtetik hamasei urte arteko espetxe zigorra ezarriko zaio, eta 15000 euroko isuna pertsona bakoitzeko”.

³ “Autoen kasua interpretatzeko esparruan definitzen den bezala, atxiloketa baliozkotzeko baldintzak ez zezudela interpretatu zuen Agrigentoko epaileak, deskribatutako testuinguru faktiko horretan oinarrituz, eta interpretazio hori zuzena da, prozedura penalaren kodearen 385. artikulua zehazten duen debekua aplikatzen delako” (Caso Sea Watch, 2020ko urtarrilak 16).

⁴ Merkataritzako Marinaren Zuzendaritza Nagusiaren kartaren 2. paragrafoa: “Ezin izango da bilaketa- eta salbamendu-operaziorik egin, harik eta nabigatzen den bilaketa- eta salbamendu-eskualdeko (SAR eremua) agintaritzaren arduradunaren adostasuna lortu arte, eta betiere agintaritzaren horren koordinaziopean”.

⁵ 2004an Nazioarteko Itsas Erakundearen itsas segurtasuneko batzordeak emandako gidalerroen 6.12 paragrafoak ematen du definizioa: “Leku seguru batean (1979ko SAR hitzarmenaren eranskinaren 1.3.2 paragrafoan aipatzen da) amaitzen dira salbamendu-lanak. Halaber, bizirik atera diren pertsonen bizitza arriskuan ez dagoen leku bat da, eta haien oinarritzko giza premiak ase daitezke bertan (elikadura, babesa eta arreta medikoa)” (MSC.167 (78) Ebazpena).

erreskatatutako pertsonak lehorreratzea debekatu dute. Zerk sortu du inmigrazioarekiko jarrera murriztaile hau Europan eta batez ere Italian? GKEak kriminalizatzeko joera honek arriskuan jartzen al ditu migratzaileen oinarrizko eskubideak? Lan honetan zehar ikusiko dugun bezala, mugen segurtasunaren lehenespenak beste guztia ahaztarazi du. Europar Batasuneko gobernuen politikak migratzaileen oinarrizko eskubideen alde lan egiten duten gizarte-mugimenduekin talka egiten dute. EBko jarrera eztabaidagarria izan da eta Zuzenbide Estatua kolokan jarri du.

Nahiz eta lehenagotik ere itsasbide garrantzitsua izan, batez ere, 2015. urtean, “Mediterraneoko migrazio-krisia” deiturikoa hasi zen. Siriako guda zibilaren ondorioz, milioi bat pertsona inguru ailegatu -edo ailegatzeko saiatu- ziren Europar Batasunaren kostaldeetara. Migrante askok desplazamendu hori egiteko aukeratutako bidea Mediterraneo itsasoa izan zen. Honen ondorioz, “Mediterraneoko migrazio-krisia” deritzogu. Bigarren Mundu Gudatik Europak bizi izan duen errefuxiatuen, asilo-eskatzaileen eta migrante ekonomikoen lekualdatze handiena izan da (Esteve, 2017). Mediterraneoetik Europara sartzeko hiru bide bereizi ditzakegu; alde batetik, Mediterraneo ekialdeko bidea, hau da, Turkiatik Greziara doana bai lehorretik zein itsasotik; bestetik, Mediterraneo erdialdeko bidea, hau da, Libia eta Tunisiatik itsasoa zeharkatuz Italia eta Maltarako helmuga daukana; eta azkenik, mendebaldeko bidea, Marokotik Espainiara doana (IOM, 2014). Esan dezakegu, beraz, Espainia, Italia eta Grezia direla Europar Batasuneko ateak Mediterraneoan.

2015. urtetik gaur egun arte migrazio fluxuak ez dira berdin garatu aipatutako hiru bideetan. 2015ean migrazio fluxu handiena ekialdeko bidetik eman zen eta Grezia izan zen Europako estatu kideen artean krisi honi aurre egin behar izan ziona. Urte horretan, 1.015.078 pertsona ailegatu ziren guztira Europako kostaldeetara, eta horietatik, gutxienez, 850.000-k Egeo itsasoa zeharkatu zuten Greziara ailegatzeko. Krisi horretan, migranteak nagusiki (%84) lau herrialdeetatik zetozen: Siria (%50), Afganistan (%21), Irak (%9) eta Eritrea (%4) (UNHCR, 2016ko ekainak 20). Aurrekaririk gabeko krisi honi erantzunez, EB-Turkia akordioa sinatu zen 2016an⁶, eta akordio honen ondorioz Mediterraneo ekialdeko bide migratorioaren ailegatze zifrak jaitsi egin ziren.

⁶ Turkiaren bidez Greziako kostaldera iritsitako asilo-eskubiderik gabeko etorkin oro Turkiara itzultzeko akordioa. Turkiako lankidetzaren truke, EBk 6.000 milioi euro ordaintzeko konpromisoa hartu zuen eta Turkiar herritarrentzako Europara bidaiatzeko bisatu-beharra kendu zuen. Aldi berean, pausu bat aurrera eman zen Turkia Europar Batasunera atxikitzeke negoziazioetan (Garcés, 2020ko martxoa).

Migratzaileek Europara ailegatzen jarraitu zuten baina 2016-2017 epealdian Mediterraneo erdialdeko bidea izan zen erabilena. 2016an 159.418 pertsona iritsi ziren Italiara (IOM, 2017ko azaroak 1), eta honek Italiako komunikabideen eta politikoen arreta piztu zuen (D'Angelo, 2018). Honen ostean, 2017an Italiak Libiarekin “Elkar ulertzeko Memorandum-a” akordioa⁷ sinatu zuen, eta ondorioz, Mediterraneo erdialdeko zifrak berriz ere jaitsi ziren. 2018an Espainiako bidea erabilena izatera pasatu zen. 2018an 84.345 migratzaile sartu ziren European eta horietatik 38.451 pertsonak Mendebaldeko Mediterraneoaren bidea aurkeratu zuten, hau da, Espainiako bidea (IOM, 2018ko urriak 5). Honek, Espainiak Marokorekin 1992an sinatutako “Pertsonen zirkulazioari, igarotzeari eta legez kanpo sartutako atzerritarrek berriz hartzeari” buruzko akordioa⁸ berraktibatzea sortu zuen (CEAR, 2021).

Estatuek giza eskubideak ez urratzeko betebeharrak negatiboa dute. Baina Estatuak betebeharrak positiboak dituzte ere; alegia, giza eskubideak babesteko erantzukizuna dute. Horretarako arrazoizko neurriak hartu behar dituzte gerta daitezkeen urraketak saihesteko, pertsonak indarkeriatik babesteko eta, baita ere, emandako urraketak ikertzeko (Nazio Batuak, 2020ko abendua). Hala ere, mugei, migrazioei eta asiloari buruzko tresna politiko-araueak ikuspegi polizialek sortu dira, segurtasuna mantentzeko helburuarekin, baina oinarrizko eskubideen errespetua kolokan jarritz (Goig, 2017).

Lan honen helburua Mediterraneoan migrazio krisiak izan duen erantzunari buruz hausnarketa juridikoa egitea da. Agente sozialak, Estatuak eta EBko agentziek Mediterraneoan egiten duten lana gidalerro gisa hartuz, 2015ean sortutako krisi migratorioari eman zaion erantzuna aztertu nahi da. Ikuspegi juridiko-kritiko batetik azaldu nahi izan da Europar Batasuneko Estatu kideetan krisi migratorioak izan duen eragina. Italiako kasuan sakondu dugu gehien azken urteotan Mediterraneoan sortu diren migrazio-fluxuen aurkako jarrera oso zorrotza adierazi delako.

⁷ Aurrerago azalduko den bezala, akordio honen helburu nagusia Italiako kostaldeetara ailegatzen diren migrante kopurua jaitea da. Horretarako, Europako oniritziarekin, Italiak Libiako agintariak diruz lagunduko ditu Libiako kostaldetik ateratzen diren itsasontzi kopurua murrizten, Mediterraneoan hegoaldeko mugak sendotze aldera (Arango, 2019).

⁸ Akordio honen helburua, Espainia eta Maroko artean sortzen den atzerritarren legez kanpoko migrazio-fluxuarekin amaitzea da.

Sarreran, Aita Mari erreskate itsasontziak Italian izandako egoera azaldu dugu. Testuinguruan kokatzeko, errefuxiatu, asilo-eskatzaile eta migratzaile terminoak definitu ditugu, eta gero Mediterraneoan migrazio krisiaren migrazio-fluxu ezberdinak azaldu ditugu. Ikusi ahal izan dugu Europar Batasuneko Estatu kide ezberdinek Mediterraneoan lan egiten duten Gobernu Kanpoko Erakundeekin izan duten jarrera antzekoa izan dela.

Bigarren atalean, Mediterraneoan migrazioarekiko bizi duen egoera sozio-politikoaz aztertu dugu. Italiako Estatuaren kasua oinarritzat hartu dugu Mediterraneoan migrazio-krisiak estatu honetan izan duen eragin sozio-politikoagatik. Ikuspegi juridiko-politiko batetik aztertu dugu urteetan zehar Italiak migrazioaren arloan onartutako araudi ezberdina eta bereziki sakondu dugu 2018tik gaur egun arte legedian egon diren aldaketak; alegia, Matteo Salvini eta Giorgia Meloniaren gobernuak onartutako dekretuak.

Lan hau aurrera eramateko, metodologia bezala, erreskate eta inmigratioari buruzko Nazioarteko legedia, Europar Batasuneko legedia eta Italiako zein Espainiako legedia aztertu da hirugarren atalean. Era berean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia aztertu dugu, besteak beste, *Hirsi Jamaa and Others vs Italy*, eta *Sharifi and Others v. Italy and Greece* sententzietan. Nazioarteko auzitegien eta Estatu kideen jurisprudentzia aztertu dugu baita ere. Honez gain, migrazioaren arloan Estatu kideek eta EBak hirugarren estatuarekin egindako aldebiko akordioak aztertu dira; hala nola, EB-Tunisia akordioa, Italia-Libia Akordioa eta azkenik, Espainia-Maroko Akordioa. Halaber, gai honi buruzko nazioz gaindikotako erakundearen eta giza eskubideen defentsarako erakundearen datuak eta txostenak aztertu dira. Aztertutako gai nagusia erreskate humanitarioa eta mugen zaintzaren ondoriozko jarduerak dira, baina horrek giza eskubideen arloarekin duen loturagatik, giza eskubideen legedia aztertuko da ere; konkretuki, asilo eskubideari dagokionez.

Laugarren atalean, migrazio-krisiaren arazo nagusien hausnarketa juridikoa egiten da, alegia, mugak kontrolatzeko zuzenbide administratiboa eta penalaren erabilera, Schengen espazioak krisi honetan erakutsi dituen ahultasunak, mugen esternalizazioa, EBko Estatu kideen elkartasun falta eta etorkinen giza eskubideekiko eragina.

Krisi honek sortu duen etengabeko migrazio-fluxua Estatu kideen egoera sozio-politikoak tenkatu ditu eta hori migrazioa geldiarazteko Estatuak garatutako legedian islatu da. Erantzun bateratu ezak eta elkartasun faltak Europako hegoaldeko Estatuaren mugen itxiera eragin du eta giza eskubideen errespetuaren kultura juridikoa urratu du.

2. Inmigrazioaren eragina Mediterraneoko estatuen egoera sozio-politikoan. Italiako kasua.

Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak (IOM) “migratzaile” hitza definitzen du herrialde baten barruan edo nazioarteko mugetatik kanpo aldi baterako edo betiko ohiko bizilekutik alde egiten duen pertsona gisa. Arrazoi ezberdinak daude sortzen diren migrazio-fluxu hauek azaltzeko⁹

Errefuxiatu eta migratzaile hauek Europar Batasunetik jasotzen dutena giza duintasuna, askatasuna eta giza eskubideak balio gisa aldarrikatzen dituen instituziotik¹⁰ espero den erantzunetik oso urrun geratzen da. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak pertsona guztiek estatu batetik beste batera joateko eskubidea dutela bermatzen du¹¹. *“Baina, Europa jada ez da elkartasunaren, egoera sozial inklusiboaren, berdintasunaren bermeen eta pertsonen duintasunaren Europa zibilizatua; orain, harresien, kontzertinen, jaiotzagatiko desberdintasunen eta arraza-gatazken Europa da”* (Ferrajoli, 2019, p. 184).

Europar Batasunak gaur egun bizi duen migrazio-krisiak agerian utzi du zer nolako babesgabeziak dauden bai nazioarteko araudian zein Europar Batasuneko araudian. Mediterraneoko migrazio-krisiari ematen ari zaion erantzuna agerian jartzen du ez soilik migrazio arloan dagoen hutsune juridiko larriak baina baita ere Europako estatuen

⁹ Begiratu “Migrazio Krisia” atala aurrean.

¹⁰ Europar Batasuneko Tratatuaren 2.artikulua: *“Batasuna giza duintasunaren errespetuan, askatasunean, demokrazian, berdintasunean, zuzenbide-estatuan eta giza eskubideen errespetuan oinarritzen da, gutxiengoetako pertsonen eskubideak barne. Balio horiek berdina dira estatu kideentzat, aniztasuna, diskriminaziorik eza, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezaugarri dituen gizarte batean”*.

¹¹ Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 13.artikulua: *“1. Pertsona orok du askatasunez zirkulatzeko eta estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzeko eskubidea. 2. Pertsona orok du edozein herrialdeetatik irteteko eskubidea, baita norberarena ere, eta bere herrialdera itzultzekoa”*.

elkartasun falta. Kontseilu Europarraren 2016ko Bratislavako Adierazpenean aipatzen den bezala, guztiz beharrezkoa da estatu kideek eta europar herritarrek Europako proiektuarekiko konfiantza berreskuratzea (Kontseilu Europarra, 2016ko irailak 16). Migratzaileen etorrera masibo horri erantzun bateratu eta solidarioa ematek urrun, Europar Batasuneko estatuek, eta batez ere Italiak, muga itxien politika ezarri dute. Horren ondorioz, *hotspot* guneak sortu dira inmigranteen iritsiera masiboa jasaten duten estatuetan. *Hotspot* guneak lehorreratze gune nagusietatik¹² gertu sortutako konfinamendu espazioak dira, eta asilo eskatzaileak EBaren barnean mugi daitezten saihesteko helburua dute¹³. *Hotspot* gune hauen eraiketa oso eztabaidagarria izan da, alde batetik, haien araudiek ez dutelako argitzen zein diren zentro horietan lan egiten duten eragile ezberdinen eginbeharrekoak, eta bestetik, giza eskubideen urraketak gertatzen direlako zentro horien barruan (Campesi, 2020). Horrela adierazi du Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2023ko martxoak 30eko *J.A. and Others v. Italy* sententzian. Sententzia honek Italiako Estatua kondenatu du Lampedusako *hotspot*-ean nazioarteko babes eskatzaileen aurka Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 3. (tratu anker eta apalesgarriak emateko debekua), 5. (askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea) eta 4. protokoloaren 4. (atzerritarrak kolektiboki kanporatzeko debekua) artikulua urratzeagatik¹⁴.

Italia *hotspot* gune gisa kontsideratu genezake Ipar Afrikako estatuekiko, batez ere Libiarekin duen hurbiltasun geografikoa dela eta. Italiak migrazio krisi honetan zeregin protagonista dauka baina erakunde ezberdinen lankidetzak beharrezkoa da gehien kaltetutako estatu kideei laguntza eta babes operatiboa emateko. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko irailaren 14ko 2016/1624 (EB) Erregelamenduak, Mugen eta Kostaldean Europako Guardiari buruzkoak, 2.10 artikuluan *hotspot* eremua kooperazio eremu gisa definitzen du: “Harrerako estatu kidea, Batzordea, Batasuneko erakunde eskudunak eta estatu kide parte-hartzaileak

¹² Lehorreratze gune nagusiak Italia, Grezia eta Espainia dira eta Estatu hauetan kokatzen dira, batez ere, *hotspot* gune gehienak. Italian *hotspot* funtzioak dituzten 6 zentro daude gaur egun; alegia, Lampedusa, Trapani, Pozzallo, Messina, Crotone e Taranton (Vassallo, 2023ko otsailak 3). Grezian, gaur egun 5 *hotspot* daude; Lesvos, Chios, Samos, Leros eta Kos irletan kokatuta (Greek Council for Refugees, 2022ko maiatzak 30). Espainian atzerritarrei aldi baterako arreta ematen dieten 9 zentro daude; 5 Kanariar uharteetan eta 4 Andaluziako Granada, Kadiz, Malaga eta Almeria probintzietan (Barbero, 2021).

¹³ Tsourdik, aldiz, *hotspot* terminoa gune geografiko espezifiko gisa definitu zuen; alegia, «hirugarren herrialdeetatik datozen etorkin asko jasotzen dituen EBren kanpoko mugaren atala» gisa definitu zuen (2016, p. 1016).

¹⁴ Sententziaren 67., 97. eta 116. paragrafoak hurrenez hurren (*J.A. and others v. Italy*, 2023ko martxoak 30).

lankidetzan aritzen diren eremua, neurrigabeko migrazio-erronka bat, dagoena edo potentziala, kudeatzeko helburuarekin. Erronka horren ezaugarria da kanpoko mugetara iristen diren migratzaileen kopurua nabarmen handitzea”. Lankidetzaren bidez, *hotspot* gisa kontsideratzen diren estatuen lan karga arintzea nahi da (Campesi, 2020).

EUAA (European Union Asylum Agency, EASO ohia) eta FRONTEX (Mugen eta Kostaldean Guardiako Europako Agentzia) EBko agentziak dira eta Estatu kideak migrazio gaietan laguntzeko sortu ziren. EUAAk agindua du estatu kideei asiloa, nazioarteko babesa eta harrera-baldintzak arautzen dituen EBko lege-multzoa, Asilorako Europako Sistema Bateratua (CEAS) izenez ezagutzen dena, aplikatzen laguntzeko (Santos, 2019). FRONTEXek mugen kontrola aurrera eramateko Estatu kideek behar duen edozein baliabide (pertsonal, teknologiko edo material) errazteko betebeharra dute. Hemen gakoa da agentziek aholkulari gisa soilik jarduten dutela eta beraz, ez dituztela ordezkatzeko asiloko edo harrerako agintari nazionalak. Beste hitzetan esanda, Europar Batasunak gai honetan dituen eskumenak Estatuaren eskumenaren pean daude. Asilo prozeduren eta sistemen erantzukizun osoa estatu kide bakoitzaren legedi nazionalaren pean dago eta horrek Europar Batasuneko arazo komun bati estatu bakoitzak erantzun ezberdinak ematea dakartza (Esteve, 2015).

Itsas erreskateetan arazoak sortzen dira erreskate horietan parte hartzen duten eragilearen Estatuaren artean. Estatu asko egoten dira inplikaturako operazio mota hauetan; alegia, erreskatea egin duen ontziaren banderaren Estatuak, gertuen dagoen portuko Estatuak, itsasontziaren ibilbidean aurreikusitako hurrengo lehorreratze-portuko Estatuak, SAR eremuarekin lotutako Estatu eskuduna eta erreskatatutako pertsonen nazionalitateko Estatu ezberdinak. Estatuaren erantzukizuna erreskatatutako pertsonen onarpenarekiko ez dago definitua nazioarteko araudian eta horrek operazio mota hauetan parte diren Estatuaren arteko gatazkak sortzen ditu (Esteve, 2015).

Europar Batasuneko agintariak operazio ezberdinak¹⁵ jarri zituzten martxan arazo honi aurre egiteko. Operazio hauek erantzun ezberdinak eman dizkiote Mediterraneoko itsasoan dagoen arazoari eta honek gatazkak ekarri ditu Europako hegoaldeko eta iparraldeko estatuen artean. Dakigunez, Italia, España eta Grezia dira Europako

¹⁵ “*Mare Nostrum*” operazioa (2013-2014), “*Triton*” operazioa (2014-2018) eta “*Themis*” operazioa (2018-)

hegoaldeko mugak eta horren ondorioz, migratzaile gehien jaso dituzten estatuak. Europar Batasuneko estatuen artean migratzaileen kuoten banaketa¹⁶ egokia egin ez denez, Europar Batasuneko estatuen arteko lankidetzaz oso eskasa izan da, eta hegoaldeko estatuak bakarrik utzi dituzte krisi honen kudeaketa egin dezaten (Goig, 2017).

2013ko urriaren 3an Lampedusa uhartetik gertu patera batean zihoazen 300 pertsona hil ostean Italiak “Mare Nostrum Operazioa” sortu zuen. Operazio honek Italiako Search and Rescue (SAR) eremuan eta baita ere, SAR eremutik haratago “bilaketa eta salbamenduak” egiteko agindua zuen. SAR eremua SAR Hitzarmenaren arabera bilaketa- eta salbamendu-zerbitzuak ematen dituen koordinazio-zentro bati lotua dagoen eta dimentsioak definiturik dituen eremua da¹⁷. Italiak hartu zituen bere gain operazio honen gastuak eta, aurrekontu handia izan zuenez, oso operazio eraginkorra izan zen (Marquina de Saracho, 2020). Hala ere, 2015. urterarte iraun zuen soilik. Migrazio fluxu jarraituak eta Europar Batasuneko beste estatuen elkartasunik ezak Italiako egoera sozio politikoa tenkatu zuen. Italiako gobernuak EBari aurpegiratu zion ez zuela lagundu, ez ekonomikoki, ez etorkinen harrerarekin ere (Martínez, 2019).

Italia Europako laguntzarik gabe inmigrazioak suposatzen duen arazoa kudeatzen saiatu zen, baina Estatu kideek Europar Batasuneko Tratatuak aipatzen duen Estatu kideen arteko kooperazio leiala¹⁸ ez errespetatzeak migrazioa segurtasunerako mehatxua zela zioten diskurtsoek gora egitea ekarri zuen EBko hegoaldeko muga-estatuetan, eta Italian bereziki (Guerra, 2018), diskurtso xenofobo eta arrazistak agertu zirelarik¹⁹. Migranteek Italian jasandako bazterkeriak eta gorroto eta kriminalizazio diskurtsoak, Italiak nazioartean duen ospea kaltetzeaz gain, nazioarteko araudiak zehazten duenaren kontrako ekintzak dira (Bachelet, 2022ko urtarrilak 20).

¹⁶ Europar Batasuneko Funtzionamenduaren Tratatuaren (EBFT) 80. artikulua: “*Kapitulu honetan aipatutako Batasunaren politikak eta horien betearazpenak elkartasun-printzipioa eta estatu kideen arteko erantzukizunaren bidezko banaketaren printzipioa bete beharko dituzte, baita finantza-arloari dagokionez ere. Beharrezkoa den bakoitzean, Batasunaren egintzek, kapitulu honen indarrez onartutakoek, printzipio hori aplikatzeko neurri egokiak jasoko dituzte*”.

¹⁷ SAR Hitzarmenaren Eranskinaren lehenengo kapituluaren 1.3 artikulua.

¹⁸ Europar Batasuneko Tratatuaren 4.3. artikulua: “Lankidetzaz leialaren printzipioaren arabera, Batasunak eta estatu kideek elkar errespetatu eta lagunduko dute Tratatuetatik eratorritako misioak betetzen”.

¹⁹ “Lampedusara ailegatu ziren errefuxiatu kopuru hain handiek eta Europak kuota-sistema egoki bat ez ezartzeak inmigrazioaren kontrako jarrerak defendatzen zituzten “La Lega” eta “5 Stelle” alderdi politikoei indarra eman zien (Guerra, 2018).

“Mare Nostrum” operazioa bertan behera geratu ostean FRONTEX Agentziak “Tritón” operazioa martxan jarri zuen. Bi operazio hauen artean diferentzia oso handia zegoen: lehenengo operazioaren helburu nagusia Mediterraneoko migratzaileen bizia salbatzea zen bitartean, bigarrenaren helburua, bizitzak salbatzetik urrun, mugak zaintzea eta kontrolatzea zen. Honen adierazle da Triton operazioak patruilatu zuen itsaso eremu murriztua; alegia, Italiako kostaldetik 30 itsas mila nazioarteko itsasoan sartu barik. Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak adierazi bezala, Triton operazioa ez zen Mare Nostrum operazioaren ordezkoa (IOM, 2015eko martxoak 27). Europar Batasuneko estatu kideek mugen kontrolari eta europar biztanleen segurtasunari migratzaileen giza eskubideei baino garrantzi handiagoa ematen hasi ziren (Nazioarteko Amnistia, 2014ko urriak 31). “Triton Operazioa” FRONTEX Agentziaren agindupean egotearen erabakia, gaur egun Europar Batasunean nagusi den “sekuritizazio” erretorikaren adierazle izan zen. EBk krisi honen ikuspegi humanitarioa alde batera utzi zuen (De Lucas, 2015).

2017an Italiak “Elkar ulertzeko Memorandum-a”²⁰ sinatu zuen Libiako estatuarekin. Akordio honen bidez, Italiak Libiako kostazainak eta Libiako beste agintari batzuk hezi, ekipatu eta babesteko konpromisoa hartu zuen, Libiako kostazainak itsasoan pertsonak atzeman eta Libiara itzultzearen truke. Akordio hau oso kritikatu izan zen bere azken helburua egoera irregularrean zeuden migratzaile guztien itzulera zelako. Libian migratzaileak haien oinarrizko eskubideen aurkako eraso sistematikoak sufritzen dituzte baita agintari publikoen aldetik ere horregatik ezin da Libia SAR Hitzarmenak erreskatea amaitzeko exigitzen duen “leku seguru” gisa kontsideratu (Cuttitta, 2019).

2.1 Inmigrazioaren kudeaketa Italian ikuspegi juridiko-politikotik.

Italia herrialde pobretu emigratzailea izatetik migrazioaren helmugako herrialde nagusietako bat izatera igaro da. Inmigrazioa Italian garrantzia hartzen hasi zen Estatuko hainbat sektoretan eskulanaren beharra zegoelako. Honek Italian bizi zen migrante kopurua handitu zuen. Inmigrazioak hartu zuen garrantziaren ondorioz,

²⁰ “Decreto-Legge 10 luglio 2018. Disposizioni urgenti per la cessione di unità navali italiane a supporto della Guardia costiera del Ministero della difesa e degli organi per la sicurezza costiera del Ministero dell'interno libici” (2018ko uztailaren 10eko Lege Dekretua, 84. zbk. Libiako Defentsa Ministerioaren Kostako Guardiari eta Barne Arazoetako Ministerioaren kostaldeko segurtasun-organoei laguntzeko ontzi italiarrak lagatzeko presako xedapenak).

1985etik 1995 urteen artean Italian inmigrazioaren fenomenoak arautzeko legedia agertzen hasi zen (“Legge Foschi” 943/1986 eta “Legge Martelli” 39/1990). Praktikan, lege hauek ez zioten beharrezko erantzuna eman Italiako inmigrazioaren fenomenoari; ondorioz, 1998an “Turco-Napolitano” izeneko 40/1998 Legea sortu zen. Lege honek aurreikusitako neurri aurrerakoiak ez zuten parlamentuaren ezta gizartearen babes handirik jaso eta honek 2000. urteko lehen hamarkadan onartutako legeek (“legge Bossi-Fini” 189/2002 eta “legge Maroni” 94/2009) izaera murriztailea izatea sortu zuen (Cimmino, 2006). 2010eko hamarkadan atzeritarrekiko mesfidantza handituz doa “La Lega” eta “5 Stelle” indar politikoek, Matteo Salviniren lidergoarekin, egindako politiken ondorioz. Italiak migranteen giza eskubideen murriztapen adierazgarrienak 2018tik aurrera eman dira. 2018an onartutako 132/2018 Legea (Matteo Salviniren “Decreto di Sicurezza” gisa ezaguna) eta 2019an onartutako 53/2019 Legea (“Decreto di Sicurezza bis” gisa ezaguna) Italian aurrekaririk gabeko migranteen giza eskubideen murriztapena suposatu zuen (Scarcia, 2020ko martxoak 25). “Fratelli d’Italia” indar politikoak, Giorgia Meloniren lidergoarekin, 2022ko urrian Italiako gobernua lortu zuen. Matteo Salviniren ildoarekin jarraituz, 2023ko urtarrilaren 2an “*Disposizioni urgenti per la gestione dei flussi migratori*” izeneko Lege Dekretua onartu zuen, Mediterraneoan lan egiten duten GKEen itsasontzien lana oztopatuz, Italiarako migrazio-fluxua mozteko helburuarekin. Dekretu hau Nazioarteko hitzarmenek zein Europako erregelamenduek baieztatutako giza bizitzaren babesaren balio primarioaren aurkakoa da, eta pertsonen erreskatea kriminalizatzen du (Vassallo, 2022ko abenduak 30).

2.1.1 Italiako Errepublikaren 65.Kabinetea (2018-2021): Matteo Salviniren dekretuak.

Aurrean azaldu dugun bezala, Italiako migrazio politika giza eskubideekiko gero eta jarrera murriztaileagoa hartzen joan da. Kriminalizazio tendentzia honek 2018an eta 2019an bere adierazpen argiena izan zuen Matteo Salvinik, Italiako barne ministroa zen garaian, “Decreto di Sicurezza” (Decreto Legge, 04/10/2018 n° 113) eta “Decreto di Sicurezza bis” (Decreto Legge, 14/06/2019 n° 53) onartu zituenean (F. Pusterla, 2021). Matteo Salviniren 2018ko eta 2019ko dekretuek Italiako *Testo Unico in materia de immigrazione* —286/1998 Dekretu-Legea— testua aldatu zuten, eta immigrazio

klandestinoarekin lotutako edozein delituren aurrean zigorrak eta isunak indartu zituzten (Penchaszadeh & Sferco, 2020).

“Decreto di Sicurezza” delakoak Italiako asilo eta inmigrazio politikarentzako aldaketa handia suposatu zuen. Neurri oso zorrotzak, inmigrazioaren aurkakoak eta baita ere giza eskubideen kontrakoak, onartu ziren. Neurri horien artean honako hauek egon ziren:

- Lehenengo artikulua asiloa emateari buruzko xedapen berriak jaso zituen, eta arrazoi humanitarioengatik Inmigrazioari buruzko Testu Bakarrean aurreikusitako babesa indargabetzea aurreikusten zuen. Dekretu berri honekin soilik “kasu berezietan” onartuko zen asilo eskaera.
- Bigarren artikuluan, “*Centri di permanenza per il rimpatrio*”, alegia, aberriratu arteko egonaldi-zentroei buruz neurri berriak ezarri ziren. A aberriratzeko Zentro Iraunkorrak, Italiako lurraldean dauden migratzaile irregularrak identifikatzeko eta deportatzeko zentroak dira. Zentro hauen funtzioa baliozko bizileku-baimenik gabe Italiako lurraldean dauden pertsonak identifikatzea eta jatorrizko herrialdera deportatzea da (M. Pusterla, 2019ko ekainak 29).
- Dekretu honen beste neurri garrantzitsu bat nazioarteko babesa eta errefuxiatu-estatutua ezeztatzea edo ukatzeko erraztasunaren inplementazioa izan zen. Honen bidez, errefuxiatuaren estatutua edo babes subsidiarioa kentzea dakarten delituen zerrenda handitu zen (adibidez, funtzionario publiko baten aurkako mehatxua edo indarkeria errefuxiatu estatutua kentzeko arrazoi gisa kontsideratuko zen dekretu hau indarrean sartu ostean). Neurri honen bidez, kasu honetan Italiako estatuari babesa eskatzen zion pertsona batek askoz ere traba handiagoak izango zituen babes hori lortzeko.
- Harrera-sistema murriztea dekretu honen helburuetako bat izan zen ere. Asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak hartzeko sistema (SPRAR) nazioarteko babesaren titularrei edo inoren kargura ez zeuden adingabe atzerritarrei soilik aplikatuko zitzairen eta ez beste inori (Camilli, 2018ko irailak 9). Honek pertsona talde oso handia uzten zuen harrera-sistema honetatik kanpo.

“Decreto di sicurezza bis” 2019an onartu zuen Salvinik. Dekretu honek “Segurtasun-politikak babesteko administrazio-ekintzaren eraginkortasuna hobetzeko premiazko xedapenak” izenburua jaso zuen. Bigarren dekretu honek, lehenengoak ez

bezala, migratzaileei laguntzen dieten gizarte-eragileengan jartzen du arreta; alegia, GKE ezberdinen itsasontzietan lan egiten duten pertsonetan eta hauek egindako lan humanitarioan. Hiru neurri garrantzitsu hartu ziren inmigrazio arloan: lehenengo artikuluan, GKEen itsasontzientzat Italiako portuen itxiera, Italiako Barne Ministroaren (Matteo Salviniren) esku utziz, ordena eta segurtasun arrazoiengatik, “itsasontziak Italiako jurisdikziopeko itsasoan sartzea mugatzearen edo debekatzearen” erabakia. Bigarren artikulua, itsasontzietako kapitainarentzat sartzio ekonomiko handiak (150 mila eta milioi baten arteko isunak) aurreikusten ziren «Italiako lurralde-uretan sartzeko, igarotzeko edo gelditzeko debekua urratuz gero». Azkenik, hirugarren eta laugarren artikuluek, “inmigrazio klandestinoaren” aurka borrokatzeko neurri berriak aplikatu zituzten diru kopurua handituz.

Dekretu hauek agerian uzten dute Matteo Salviniren gobernuaren kideek GKEen itsasontzien aurkako jarrera errepresiboa. Zuzenbidea GKEen lan humanitarioa oztopatzeko erabiltzeaz gain, komunikabideak erabili dituzte ere GKEen itsasontzien kontra frogarik gabeko baieztapenak zabaltzeko. Adibiderik nabarmenena Carmelo Zuccaro da, Kataniako fiskala. 2017an baieztatu zuen GKE batzuek trafikatzaileengatik dirua jasotzen zutela eta haien arteko harremanak zeudela bazekiela (Tori, 2017ko maiatzak 5). GKEen aurkako difamazio kanpainia honek helburu bakar bat zuen: lan humanitarioa aurrera eramaten zuten erakundeekiko mesfidantza sortzea Italiako gizartean. Mediterraneoan bizitzak salbatzeko lan egiten duten GKEak pertsonekin trafikatzeko erakundeekin parekatzea, migratzaileekiko elkartasunaren kriminalizazioaren adibide argia da. Hala ere, Italiako epaileek eta auzitegiek, nazioarteko zuzenbidean eta Italiak berak sinatutako Hitzarmenetan oinarrituz, ez zituzten aintzat hartu Italiako Fiskaltzak aurkeztutako karguak (Larrucea, 2019).

2.1.2 Italiako Errepublikaren 68.Kabinetea (2022-): Meloni garaia.

Giorgia Melonik, 2022tik aurrera Italiako lehenengo Ministroak, inmigrazioaren aurkako jarrera zorrotza izan du. 2023ko urtarrilaren 2an inmigrazioa arautzeko dekretu berri bat aurkeztu zuen. Dekretu honek (*“Disposizioni urgenti per la gestione dei flussi migratori”* izenekoa) GKEen itsasontzien lana oztopatzeko helburua du, eta ondorioz, errefuxiatuen egoera gero eta zailagoa egiten du. Dekretu honek GKEen itsasontziek egiten dituzten erreskateak oztopatzeko neurri berriak onartu zituen; besteak beste,

lehorreratze selektiboak, lehorreratzeko portu urrunak eskaintzea eta erreskate operazio bat egin bezain laster portura joateko obligazioa. Honez gain, dekretu honen arabera erreskate itsasontziko langileek migratzaileei nazioarteko babesa eskatzeko eginbeharrekoak azaltzeko obligazioa dute.

Dekretu honen bidez, lehorreratze selektiboak egitea onartu zen. Erreskateko itsasontziak pertsona talde handiak erreskatatzeko aukera dute baina Italiako gobernuaren estrategia berri honekin soilik pertsona talde konkretu batzuk lehorreratu ahal dituzte. Lehorreratuak izateko baldintza bat bete behar da: behar humanitarioa duen pertsona izatea, hau da, haurdun dagoen emakumea izatea, haurra izatea edo gaixo egotea. Honek esan nahi du, *a priori* gaixorik ez dauden gizon edo emakume helduek ez daukatela erreskatatu dituen itsasontzitik Italiako lur irmora jaisteko eskubiderik. Lehorreratze selektiboak oso kritikatuak izan dira. Pertsona ahulen eta ez ahulen arteko diferentzia eginez, batzuen lehorreratzea onartzen dute eta beste batzuk berriz, itsasontzian geratzera behartuta daude. Erdialdeko Mediterraneoko fluxu migratzailearen dinamikak argi uzten du itsasontzi hain prekarioetan bidaiatzen duten pertsona guztiak egiturazko ahultasun egoeran daudela. Beraz, Italiako gobernuak ezarritako “ahultasun” neurketa hori guztiz diskriminatzailea da, pertsona guztiak ahultasuneko egoeran aurkitzen baitira (Carrera et al., 2023ko otsailak 24).

Bestetik, lehorreratzeko portuak erreskatea gertatu den lekutik urrun esleitzea eta erreskate operazioa amaitu bezain laster portura joateko beharra dira Italiako gobernuaren inmigrazioaren kontrako beste gako-neurriak. Kataniako portuetan migratzaileen iritsieraren presioa arintzeko neurria dela argudiatuz, Italiako gobernuak erreskate-eremutik urrun dauden portuen esleipena egiten du. Adibidez, Kataniako itsas portu bat eman ordez, Carrarako portua Toscanako probintzian asignatzea. Honek, GKEen gastuak handitzeaz gain, erreskate eremutik egun gehiagotan urrun egotea suposatzen du. Egun horietan zehar erreskateak egiteko itsasontzirik ez egoteak Mediterraneoan hildako kopuruak handitzen ditu (Nazioarteko Amnistia, 2023ko otsailak 1). Honez gain, erreskate bat baino gehiago egitea debekatzea sorospen-omisioa²¹ suposatu dezake. Till Rummenhohl, SOS Humanitateko operazio

²¹ Espainiako Kode Penalak 195. artikuluan sorospen omisioa zigortzen du: “*Norbaitek ez badio sorosten babesik gabe eta ageriko arrisku larrian dagoen pertsona bati, hori norberaren edo hirugarrenen arriskurik gabe egin dezakeenean, orduan, pertsona horri hiru hilabetetik hamabi arteko isun zigorra ezarriko zaio*”.

buruak adierazi zuen erreskatatutako pertsonak esaten zieten pertsona gehiago zeudela itsasoan hondoratze²². Legez kanpoko inmigrazioaren aurka borrokatzeko behararen aitzakiarekin, Italiako gobernuak giza eskubideen aurkako neurrien adopzioa justifikatzen du. Nazioarteko Amnistiak egindako txosten batean adierazi bezala, dekretu honen neurriek Italiak bizitza eskubidea babesteko duen obligazioaren urraketa suposatu dezakete²³.

Dekretu honen arabera, erreskate itsasontzian lan egiten duten pertsonak azaldu behar diete interesa duten pertsonen nazioarteko babesa nola eskatu, eta pertsona hauen informazioa bildu behar dute Italiako agintariei emateko. Baina babesa eskatzeko moduari buruzko informazioa ematea eta asiloa eskatu nahi duten pertsonen datuak biltzea Estatuaren erantzukizuna da, nazioarteko babesa eskatzeko prozeduraren lehen pausuak baitira.

Giorgia Meloniren gobernuaren azken berritasuna, 2023ko apirilaren 11koa, 6 hilabetez dekretatutako “larrialdi-egoera nazionala” da. Larrialdi nazionalako egoera Babes Zibilaren Kodearen 24. artikulua arautzen du, 7. artikuluan definitutako baldintza jakin batzuetan oinarrituta; alegia, giza jardueratik eratorritako larrialdiak badira eta berehalako esku hartzea beharrezkoa bada, larrialdi egoera dekretatu daiteke. Honek, aparteko botereak ematen dizkio Italiako Gobernuari sortutako larrialdiari aparteko bitartekoekin aurre egiteko²⁴. Larrialdi egoera hau dekretatzeak esan nahi du, alde batetik, Meloniren Gobernuak lege-indarra duten neurriak onar ditzakeela Parlamentuari galdetu gabe²⁵ eta bestetik, indarrean dagoen ordenamenduko arau batzuk indargabetzeko aukera duela²⁶. Dekretu honek Italian geratzeko baimenik ez duten

²² Till Rummenhohl, SOS Humanitateko operazio burua: "Itsasontzi bat erreskatatzen dugunean, maiz entzuten dugu bizirik atera direnen artean hondoratze gehiago izan direla, jende gehiago desagertu dela itsasoan. Beraz, guretzat zaila da alde egitea, batez ere pertsona gehiago erreskatatzeko gaitasuna izango genukeelako" (Liboreiro, 2023ko otsailak 6).

²³ Eskubide honen babesa Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 6. artikuluan eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 2. artikuluan aurki dezakegu.

²⁴ “Codice della protezione civile”-ren 7.1 a) artikulua: “*Garrantzi nazionalako larrialdiak, jatorri naturaleko hondamendiekin edo giza jardueraren ondoriozkoekin zerikusia dutenak, eta, duten intentsitateagatik edo hedaduragatik, berehalako esku hartzea behar dutenak, aurrez zehaztutako denbora-tarte mugatuetan erabiliko diren ezohiko bitarteko eta botereekin egingo zaie aurre*”.

²⁵ Italiako konstituzioaren 77. artikulua: “*Premiazko ezohiko kasuetan, Gobernuak, bere erantzukizunpean, lege-indarra duten behin-behineko neurriak hartzen baditu, egun horretan aurkeztu behar ditu Ganbaretan konbalidatzeko (...)*”.

²⁶ “Codice della protezione civile”-ren 25.1 artikulua: “*Garrantzi nazionalako larrialdi-egoeran egin beharreko esku-hartzeen koordinazioa babes zibileko aginduen bidez egingo da. Agindu horiek indarrean dauden xedapen guztien salbuespen gisa hartuko dira, larrialdi-egoerari buruzko eztabaidan adierazitako mugen eta modalitateen barruan, eta ordenamendu juridikoaren printzipio orokorrak eta*

migratzaileen aberriratzea azkartzea ahalbidetzen du, bai eta identifikazioak eta kanporatzeko aginduak azkartzea ere.

Italiako Ministro Kontseiluak lege indarra duen araudia onartzeko boterea ematen dion dekretu hau onartu izatea eztabidagarria izan da. Larrialdietarako dekretuen abusuak Italiako ordenamendua ezaugarritzen duen fenomeno da eta honek Italiako botereen arteko oreka zalantzan jartzea sortu du. “Larrialdi egoera” terminoaren ambiguitasunak diskrezionaltasun handia ematen dio gobernuari eta kolokan jarri da larrialdiko araudi-tresnak benetan ezohikoak diren kasuetan soilik erabiliak izan direla (Comazzetto, 2020ko maiatzak 25). Dekretu hau onartu baino egun batzuk lehenago 3000 migratzaile lehorreratu ziren Italiako kostaldeetan eta guztira 31000 pertsona kontabilizatu dira urte hasieratik. Aurreko urteekin alderatuz ez dira zifra hain altuak eta ondorioz, dekretu honen benetazko beharra eztabaidatua izan da.

3. Itsas erreskatearen araubidea

Giza eskubideei, pertsonen erreskateari eta erreskatatutako pertsonak leku seguru batean lehorreratzeari buruzko araudia errespetatzea ezinbestekoa da itsasoan pertsonak erreskatatzeko edozein operazio egiteko. Lehenik eta behin, SAR Hitzarmenak zehazten dituen definizioak²⁷ kontsultatuz, komeni da argitzea “bilaketa”, “erreskatea”, “Salbamentu eta erreskate zerbitzua” eta “Salbamentu eta erreskate zona” terminoak.

- “Bilaketa” arriskuan dauden pertsonak aurkitzeko, eskura dauden langile eta bitartekoak erabiliz, normalean salbamenduko zentro koordinatzaile batek edo salbamenduko azpizentro batek koordinatzen duen operazioari deritzo.
- “Erreskatea” arriskuan dauden pertsonak erreskatatzeko, lehen laguntza medikoak edo bestelakoak emateko eta leku seguru batera eramateko operazioari deritzo.

Europar Batasuneko arauak errespetatuz (...) indarrean dauden legeekiko salbuespenak badituzte, salbuespenak egin nahi zaizkien arau nagusien aipamena jaso behar dute, eta berariaz arrazoitu behar dira”.

²⁷ SAR Hitzarmenaren Eranskinaren lehenengo kapituluaren 1.3 artikulua.

- “Salbamentu eta erreskate zerbitzua” baliabide publikoak eta pribatuak erabiliz, aireontziak, itsasontziak eta beste nabe eta instalazio batzuk barne, mediku-kontsulta, hasierako mediku-laguntza edo osasun-arrazoiengatik ebakuatzea barne hartzen duten zaintza-, komunikazio-, koordinazio-, bilaketa- eta salbamendu-funtzioak betetzea da.
- “Salbamentu eta erreskate zona” bilaketa- eta salbamendu-zerbitzuak ematen diren salbamenduko koordinazio-zentro bati lotua dagoen eta dimentsioak definiturik dituen eremua da.

Hiztegia argituta, etorkinen erreskatearen araubidea aztertuko dugu. Araubide ezberdina aurkitu dezakegu nazioarte mailan eta Europako mailan. Gainera, Estatu bakoitzak erreskateei buruzko araudi nazionala sortu dezake. Kasu honetan, Espainiako eta Italiako araudian zentratuko gara soilik.

3.1 Nazioarteko Hitzarmenak

Nazioarteko Zuzenbideak itsasoan arriskuan dauden pertsona guztiei laguntza emateko betebeharra ezartzen du. Nazioarteko Itsas Erakundeak (IMO) xedatzen du itsasoan laguntza behar dutenei laguntzeko betebeharra gizakien bizitza salbatzeko betebeharrak moralean oinarritzen dela. Hala ere, betebeharrak etikoak ez ezik, legezkoa ere bada, nazioarteko hainbat hitzarmenetan onartuta baitago.

Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioak (CONVEMAR) laguntza emateko eginbeharra ezartzen die Estatu guztiei. Estatuak bere bandera daramaten itsasontzien kapitainei itsasoan desagertzeko arriskuan dagoen edozein pertsonari laguntzeko betebeharra ezarri behar diete. Horretarako, posible den heinean, abiada bizian joan behar dira laguntza behar duten pertsonak dauden lekura. Gainera, segurtasuna mantentzeko Estatu bakoitzaren aldetik bilaketa eta salbamentu zerbitzu publiko baten eraketaren sustapena aurreikusten du²⁸.

²⁸Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren (CONVEMAR) 98. artikulua: “*Estatu orok eskatuko dio bere bandera duen ontzi bateko kapitainari (...) a) Laguntza eman diezaiola itsasoan desagertzeko arriskuan dagoen edozein pertsonari(...) laguntza behar dutela jakin bezain laster eta hori egiteko arrazoizko aukera badu*”.

Zentzu honetan ere, Itsasoan Giza Bizitza Segurtasunari buruzko 1974ko Nazioarteko Hitzarmena (SOLAS Hitzarmena) eta Itsas Bilaketari eta Salbamenduari buruzko 1979ko Nazioarteko Hitzarmena (SAR Hitzarmena) badira ere erreskate maritimoaren arloan oso hitzarmen garrantzitsuak. Hauek ere laguntza emateko betebeharra ezartzen dute eta hori gauzatzeko neurriak ezartzen dituzte.

SOLAS Hitzarmena izan zen itsas bilaketa eta salbamendurako munduko gobernuek zerbitzu publikoak eratzeko eskatu zuen nazioarteko lehen tresna juridikoa. Garrantzitsua izan zen 1974. urterarte itsasontzien kapitainek soilik hartzen zutelako erreskateen erantzukizun juridikoa. Tresna juridiko honek itsasoan egiten ziren erreskateekiko Gobernuen erantzukizun juridikoa zehaztu zuen (Nazio Batuak, 2020ko abendua). Helburu nagusia da ontzien segurtasunarekin bateragarriak diren gutxieneko arauak ezartzea eraikuntzari, ekipamenduari eta erabilerari dagokionez. Segurtasun neurri horiek betetzen direla egiaztatzea Hitzarmena sinatu duten Estaturen erantzukizuna da, izan ere, gobernu kontratugile bakoitzak bere gain hartzen baitu kostaldeak zaintzeko eta kostaldetik gertu arriskuan dauden pertsonak salbatzeko neurriak hartzeko betebeharra²⁹. Espainiako Itsas Administrazioak, Itsasontziak Abian Jartzeari buruzko Erregelamendua onartzen duen 2000ko urtarrilaren 18ko Agindua aplikatuz, ontziaren despatxoak emateko egin behar diren egiaztapenen bidez ziurtatzen du ontzi zibilek legezko arauetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela³⁰.

SAR Hitzarmena itsasoko edozein lekutan arriskuan dagoen edozein itsasontziren erreskatea Nazioarteko bilaketa- eta salbamendu-plan baten bidez garatzeko sortu zen. Estatu sinatzaile bakoitzari “SAR Eremu” bat esleitu zitzaion eta bere erantzukizupean utzi ziren zonalde horretako bilaketa eta salbamendu operazioak. SAR eremu ezberdinen arteko lankidetzak sustatzeko helburuarekin sortu zen ere Nazioarteko hitzarmen hau. SAR Hitzarmenak,

²⁹ SOLAS Hitzarmenaren V. Kapituluaren 15. Erregela a): *“Gobernu kontratugile bakoitzak bere gain hartzen du kostaldeak zaintzeko eta kostaldetik gertu arriskuan dauden pertsonak salbatzeko neurriak hartzea bermatzeko betebeharra. Neurri horien artean sartuko dira beharrezkotzat eta erabilpen posiblekotzat jotzen diren itsas segurtasuneko instalazioak ezartzea, erabiltzea eta mantentzea, itsas trafikoaren dentsitatea eta nabigaziorako dauden arriskuak kontuan hartuta, eta, ahal den neurrian, pertsona horiek lokalizatzeke eta salbatzeko baliabideak emango dituzte”*.

³⁰ Itsasontziak Abian Jartzeari buruzko Erregelamendua onartzen duen 2000ko urtarrilaren 18ko Aginduaren 1. artikulua: *“Erregelamendu honen xedea da ontzi-enpresek, kontsignatarioek eta kapitainek itsas agintaritzen aurrean bete behar dituzten baldintzak zehaztea, bai administrazioaren ikuspegitik, bai itsas segurtasunaren ikuspegitik, ontzien portu-sarrera edo -irteera kontrolatzeko, edo barneko itsas uretan eta jurisdikziopeko itsasoan egotea kontrolatzeko (...)”*.

sorospen-fasearen definizioan³¹, argi uzten du berehalako laguntza-betebeharra gertatzen dela pertsona bat, itsasontzi bat edo beste ontzi bat arrisku larrian edo berehalakoan dagoenean. Zentzu honetan, Miguel Zeak, Almeriako Itsas Salbamenduko koordinazio-zentroko buruak, azaldu zuen bezala, *“Patera-larrialdietan, beti dekretatzen dugu berehalako arriskua lehen minututik. Benetako larrialdizat jotzen dugu beti, eta berehalako arriskuan dagoen ontzizat. Pateren nabigagarritasun-egoera beti da prekarioa. Disparate bat da zenbat pertsona joaten diren patera horietan. Baliteke ontzia ordu erdian desegin izana”* (Caballero, 2018ko apirilak 4, párr. 4). Beraz, aditu honen arabera ontzi prekario horietan bidaiatzen duten pertsonen bizitza arriskuan dago eta ondorioz, edozein itsasontzik hauek erreskatatzeko obligazioa du. Honez gain, SAR Hitzarmenak gogorarazten digu ere itsasoan arriskuan dagoen edozein pertsonari, nazionalitatea, izaera juridikoa edo inguruko inguruabarrak alde batera utziz, laguntza emateko betebeharra³². Errefuxiatu eta migratzaile ekonomikoek EBra iristeko bide legal eta segururik ez dutenez, ibilbide alternatiboak aukeratzera behartuta daude. Hala ere, honek ez du aldatzen itsasoan arriskuan dauden pertsonen laguntza emateko legezko betebeharra (Seoane, 2019).

Puntu honetan komeni da azaltzea zer den “portu seguru” bat. Nazioarteko araudiak gai honetan duen irimotasun-faltak, hau da, juridikoki ez azaltzea zer den “portu segurua” ezta lehorreratzeko “leku segurua” ere, itsasertzeko estatuak erreskateekiko jarrera arduragabeak izatea ahalbidetzen du (Hellman, 2020). 2004an Nazioarteko Itsas Erakundearen itsas segurtasuneko batzordeak emandako gidalerroen 6.12 paragrafoan azaltzen da zer den “leku segurua”; alegia, erreskatea amaitzen den lekua. Leku horretan, erreskate horretatik bizirik atera direnen bizitza ez da egongo mehatxatuta, eta haien oinarrizko giza premiak (elikadura, babesak eta arreta medikoa) asetuta egongo dira. Hala ere, Itsas Segurtasuneko Batzordeak emandako gidalerroak Estatuentzako aholkuak dira soilik eta, araudietan jasota ez daudenez, ez dira lotesleak. Erreskatatuak izan diren pertsonak “leku seguru” batean lehorreratuak izateko eskubidea daukate eta hauek erreskatatu dituen ontziak hori ez betetzeak, hau da, tratu txarrak sufritu ahal dituzten leku batean lehorreratzeko, migratzaile hauen giza eskubideen kontrakoa izango litzateke (Nazio Batuek, 2020ko abendua). Hala ere, ez dago itsasertzeko estatuak itsasoan erreskatatutako pertsonak beren portuetan lehorreratzeko

³¹ SAR Hitzarmenaren 1.3.13 Kapitulua: *“Sorospen-fasea. Pertsona bat, itsasontzi bat edo beste ontzi bat arrisku larri edo berehalakoaren mehatxupearan dagoela eta berehalako laguntza behar duela uste justifikatua dagoen egoera”*.

³² SAR Hitzarmenaren Eranskinaren 2.1.10 kapitulua: *“Alderdiek bermatuko dute itsasoan arriskuan dagoen edozein pertsonari laguntza ematea. Hori egingo dute pertsona horien nazionalitatea edo izaera juridikoa zein den edo pertsona horiek zein inguruabarretan dauden kontuan hartu gabe”*.

baimentzera behartzen dituen tresna juridikorik. Honek Mediterraneoan lan egiten duten GKEen itsasontzien lana asko zailtzen du lehorreratzea baimentzeko obligazioa ezartzen dion nazioarteko araudia ez egoteak aitzaki gisa erabili duelako Italiak, legedi nazionalaren bidez, erreskatatutako pertsonak dituzten itsasontziak Italiako portuetan sartzea debekatzeko (Hellman, 2020). Europako gobernuen “portu itxien” politikak asko zailtzen du migranteak “leku seguruak” diren portuetan lehorreratzea, eta luzatu egiten du migranteen sufrimendua erreskatearen ostean.

Itsas Salbamenduari buruzko 1989ko Nazioarteko Hitzarmenak (SALVAGE), ildo berdinean, laguntza emateko eginbeharra ezartzen die itsasontzietako kapitain guztiei³³ baina pausu bat aurrerago egiten du eta salbatzaileen eta Hitzarmen honen alderdi diren Estatu arteko lankidetzaren egon behar dela xedatzen du giza bizitzak salbatzeko operazioak eraginkortasunez eta behar bezala egiteko helburuarekin³⁴. Antonio Guterres, Nazio Batuen Erakundearen Idazkari Nagusiak, adierazi zuen migrazioa ukazina zela jakinda, Estatuak modu positiboan aurre egin behar ziotela, estatu arteko lankidetzaren bidez, lekualdatzen ziren pertsonen eskubideak zapalduak ez izateko (Guterres, 2018ko uztailak 12). Baita ere, lurreko, itsasoko eta aireko migratzaileen legez kontrako trafikoen aurkako Protokoloak, Delinkuentzia Antolatu Transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa osatzen duenak, estatu alderdiek elkarrekin lankidetzan jardun dezatela eskatzen du, estatu alderdiek itsasoko nazioarteko zuzenbidearekin bat etorritik lankidetzan aritzeko duten betebeharra azpimarratuz³⁵.

Erreskatutako pertsonen artean nazioarteko babesa eska dezaketen pertsonak egon daitezke eta horregatik “non refoulement” printzipioa errespetatzea “*erabat nahitaezkoa*” da (De Lucas, 2019, p. 308). Genevako Konbentzioak Estatu sinatzaileei espresuki debekatzen die asilo-eskatzaile bat bere bizitza edo askatasuna arriskuan dagoen beste Estatu batera

³³ Itsas Salbamenduari buruzko 1989ko Nazioarteko Hitzarmenaren 10. artikulua: “1. Kapitain orok du itsasoan desagertzeko arriskuan dagoen edozein pertsonari laguntza emateko eginbeharra, betiere horrek arrisku larrikeria eragiten ez badie bere ontziari eta ontzian dauden pertsonari (...)”.

³⁴ Itsas Salbamenduari buruzko 1989ko Nazioarteko Hitzarmenaren 11. artikulua: “Salbamendu-eragiketekin zerikusia duten gaiei buruzko arauak ematean edo erabakiak hartzean, hala nola laguntza behar duten ontziak portuan onartzea edo salbatzaileei zerbitzuak ematea, estatu parte orok kontuan hartuko du salbatzaileen, beste alderdi interesdunen eta agintari publikoen artean lankidetzaren egon behar dela (...)”.

³⁵ Protokoloaren 7. artikulua: “Estatu kideak ahalik eta gehien arituko dira elkarlanean, itsasoan migratzaileen legez kontrako trafikoa prebenitu eta zigortzeko, itsasoko nazioarteko zuzenbidearekin bat etorritik”.

kanporatzea³⁶. Baita ere, Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo umiliagarrien aurkako Konbentzioak debekatu egiten du tortura jaso dezakeen herrialde batera inor kanporatzea, itzultzea edo estraditatzea³⁷. Jugoslavia ohiaren Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Anto Furundzija-ren aurkako sententzian fiskalak adierazi bezala, Estatuek tratu txarrak gertatu baino lehen jardun behar dute, hau da, giza eskubideen aurkako arau-hauste potentzialak saihestu behar dituzte³⁸. Horretarako ezinbestekoa da erreskatatutako pertsonak leku seguru batean lehorratzea ez itzultzeko printzipioa errespetatuz.

3.2 Europar Batasuneko araudia

Amsterdam-eko 1999ko Tratua izan zen, lehenengo aldiz, inmigratio eta asiloari buruz eskumen komunitarioa onartu zuen Tratua. 1999ko urriaren 15 eta 16an Tampere-ko ospatutako Kontseiluaren helburua zen inmigratio arloan politika amankomunaren oinarriak jartzea; alegia, jatorrizko eta igarotzeko herrialdeekin lankidetzaren asilo sistema europarraren sorrera eta migrazio-fluxuen kudeaketa (López-Romero, 2006). Europar Batasuneko Politika amankomun honen sorrerak, zirkulazio askea bermatzeaz gain, askatasun, segurtasun eta justizia espazio bat sortzea³⁹ ahalbidetuko zuen. Hala ere, 2001eko irailaren 11an Estatu Batuetan, Madrilen 2004ko martxoaren 11an, eta Londresen 2005ean gertatutako atentatuen ondorioz, zirkulazio askeko espaziora sartu nahi zuten pertsonen kontrola areagotu zen eta EBak garatutako migrazio politiketan kanpo mugen segurtasunaren bermaketa erabakigarria izan zen (Olesti Rayo, 2008).

³⁶ Genevako Konbentzioaren 33.1. artikulua: *“Estatu kontratugile batek ere ezin izango du, kanporatze edo itzultze bidez, errefuxiatu bat inola ere jarri bere arraza, erlijio, nazionalitate, talde sozial edo iritzi politikoengatik bere bizitza edo askatasuna arriskuan dagoen lurraldeetako mugetan”*.

³⁷ Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo umiliagarrien aurkako Konbentzioaren 3.1. artikulua: *“Estatu alderdi batek ere ez du pertsona bat beste estatu batera kanporatu, itzuli edo estraditatuko, baldin eta arrazoi oinarritutako badaude uste izateko pertsona horrek tortura jasateko arriskua duela”*.

³⁸ Fiskala v. Furundzija, IT-95-17/1-T. zbk., Jugoslavia ohiaren Nazioarteko Zigor Auzitegiaren epaia, 1998ko abenduaren 10ekoa, 148. paragrafoa: *“Ez da nahikoa torturak egin ondoren esku hartzea, gizakien osotasun fisikoak eta moralak kalte konponezinak jasan dituenen. Estatuek tortura-ekintzei aurrea hartzeko neurri guztiak aplikatzeko betebeharra dute”* (Jugoslavia ohiaren Nazioarteko Zigor Auzitegia, 1998ko abenduak 10).

³⁹ Europar Batasuneko Tratua-ren 3.2. artikulua zehazten du: *“Batasunak askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparrua eskainiko die bere herritarrei, barneko mugarik gabe, pertsonen zirkulazio askea bermatuta egon dadin, eta, aldi berean, neurri egokiak hartuko ditu kanpoko mugak kontrolatzeko, asiloa, inmigratioa eta delinkuentziari aurrea hartzeko eta haren aurka borrokatzeko”*.

Europar Batasuneko Funtzionamenduaren Tratatuen (EBFT) arabera, migrazioa Europar Batasunaren eta Estatu kideen artean banatutako eskumena da⁴⁰. EBFTren hirugarren atalaren IV. Tituluan zehazten dira zeintzuk diren zirkulazio askea bermatzeko bete beharrekoak. Alegia, Estatu kideen elkartasunaren bidez eta hirugarren Estatuetakoa herritarrak errespetatuz, Europar Batasuneko inmigrazio politika amankomunaren oinarriak zehazten dira (Olesti Rayo, 2008). Kanpoko mugak kudeatzeko sistema integratua ezartzea gai honetan EBko helburuetako bat izan zen eta zentzu honetan sortu zen 2004an FRONTEX agentzia. FRONTEX 2007/2004 Erregelamenduan oinarritzen da eta Estatu kideen operazioak koordinatzeko zeregina du (Bermejo Casado, 2010). FRONTEXek ezin ditu bere kabuz mugen zaintzarako operazioak aurrera eraman, hau da, Estatu kideek bere laguntza eskatu behar dute. Errekeritua izatekotan, operazioak egiteko beharrezkoak diren giza baliabideak eta aktibo teknikoak Estatu kideetatik jaso behar ditu. Honen helburua da, Mediterraneoko Europako mugetara ailegatzeko diren migrante kopuru handiek sor dezaketeko egoera larria kudeatzeko Estatu kideei laguntza ematea (Olesti Rayo, 2008).

Kanpoko itsas mugak zaintzeari buruzko araudia EBko 656/2014 Erregelamenduan jasoa dago. Aplikagarria izango da Estatu kideek, FRONTEXek esleitutako kooperazio operatiboaren koordinaketaren esparruan, aurrera eramandako mugen zainketarako operazioetan⁴¹. Hala ere, kooperazioa sustatzetik urrun, mugen kontrola subiranotasun nazionalaren pean mantentzen dute Estatuak FRONTEX agentziak mugen zaintzarako dituen eskumenak mugatuz (Bermejo Casado, 2010).

Europar Batasuneko araudi amankomuna garatzen dituzten legeak ezberdinak dira Estatu Kide bakoitzean. Europar Batasunean, inmigrazioaren araudiak hiru oinarri ditu: Europar Batasuneko araudia, Estatu kideen legedia eta Estatu kideek onartutako nazioarteko hitzarmenak (Regi, 2020). Bi arazo garrantzitsu sor daitezke; alde batetik, arau-desorden honek segurtasun juridiko falta sortzea eta, ondorioz, migratzaileek eta errefuxiatuek tratatu desberdina jasotzea Batasuneko estatu desberdinetan; bestetik,

⁴⁰ EBFTren 4. j) artikulua: *“Batasunaren eta estatu kideen artean partekatutako eskumenak aplikatuko dira honako eremu nagusi hauetan: j) askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparrua”*.

⁴¹ EBko 656/2014 Erregelamenduaren 1. artikulua: *“Erregelamendu hau estatu kideek beren kanpoko itsas mugetan egiten dituzten mugen zaintza-operazioei aplikatuko zaie, Europar Batasuneko estatu kideen Kanpo Mugetako Lankidetzaren Operatiboa Kudeatzeko Europako Agentziak koordinatutako lankidetzaren operatiboaren esparruan”*.

Europako araudiaren lausotasunak Estatuak alderdi humanitarioa alde batera uztea sustatzea, eta EBko Estatu kideen barruan kriminalizazioa jarraitzea (Hernandez, 2018ko maiatzak 17).

Itsas salbamentuko operazioak egitean, aurrean aipatutako nazioarteko testuek ezartzen dituzten betebeharrak errespetatzeaz gain, Estatuak zein Europar Batasuneko agentziek sinatutako giza eskubideei buruzko akordioak errespetatu behar dituzte. Genevako Konbentzioak 33. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak bere 19. artikuluan “non refoulement” printzipioa azaltzen du, pertsona edo talde baten itzulera, estradizioa edo kanporaketa debekatuz tratu txarrak, tortura edo heriotz-zigorra jaso badezakete helmugako herrialdean. Aurrerago aipatuko dugun bezala, printzipio hau hainbatetan urratua izan da eta zentzu horretan Giza Eskubideen Europako Auzitegiak erabaki garrantzitsuak eman ditu.

Zentzu honetan ere, EBko 656/2014 Erregelamenduak debekatzen die erreskatea egiten duten itsasontziei itzulketa ezaren printzipioa urratzea. Alegia, erreskatatutako pertsonak tratu txarrak, heriotza-zigorra, torturak, pertsekuzioa edo beste edozein tratu anker sufritu ahal dituzten herrialdean lehorreratzea debekatzen du⁴². Gainera, itzulketa ezaren printzipioa babesteko haratago doa, erreskatatutako pertsonen datu pertsonalak hirugarren Estatuarekin partekatzea debekatzen duenean⁴³.

3.3 Estatu kideen araudia: Italiaren eta Espainiaren azterketa berezia

Espainia eta Italian zentratuko gara migrazioak Europar Batasunerako suposatutako duen arazoa azaltzeko. Horregatik, bi estatu kide hauen legedi nazionalak erreskateari buruz dioena azalduko dugu. Espainiak zein Italiak aurreko ataletan aipatutako erreskateari eta

⁴² EBko 656/2014 Erregelamenduaren 4.1. artikulua: “*Inor ez da herrialde batean lehorreratuko, herrialde horretan sartzera behartuko, gidatuko edo beste modu batean herrialde horretako agintariei entregatuko, ez itzultzeko printzipioa urratuz, baldin eta, besteak beste, heriotza-zigorra, tortura, jazarpena edo beste edozein zigor edo tratu anker edo umiliagarri pairatzeko arrisku larria badago, edo bere bizitza edo askatasuna arriskuan badago arraza, erlijio, nazionalitate, sexu-joera, gizarte-talde jakin bateko kide izatea edo iritzi politikoa dela-eta, edo beste herrialde batera kanporatzeko, lekualdatzeko edo estraditatzeko arrisku larria badago, ez itzultzeko printzipioa urratuz*”.

⁴³ EBko 656/2014 Erregelamenduaren 4.5. artikulua: “*Debekatuta dago datu pertsonalak hirugarren herrialdeekin trukatea itsas eragiketa batean lortu diren eta interzeptatu edo erreskatatu diren pertsonen dagokienez, ez itzultzeko printzipioa urratzeko arrisku larria dagoenean*”.

giza eskubideei buruzko nazioarteko zein Europar Batasuneko testuak berretsi dituzte. Ondorioz, barne ordenamenduaren zati izango dira eta beraz, aplikagarriak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuak izan ostean⁴⁴. Ulertu dezakegu beraz, bai Italiako zein Espainiako Estatuek itsasoan arriskuan dagoen edozein pertsona erreskatatzeko, giza eskubideak babesteko eta baita ere, “non refoulement” printzipioa errespetatzeko obligazioa dutela.

a) Espainiar Estatua

Espainiako Estatuari dagokionez, Itsas Nabigazioari buruzko 14/2014 Legeak Espainiar Estatuko jurisdikziopean dauden itsasontzien kapitainak behartzen ditu itsasoan arriskuan dauden pertsonak erreskatatzera⁴⁵. Migratzaileek Mediterraneotik Europara ailegatzeko hartzen dituzten ontziak pertsona hauen biziraupenerako arrisku larria suposatzen dute Auzitegi Gorenak hainbat sententzietan adierazi duen bezala: 13/2018 epaian, urtarrilaren 15ekoan, adierazi zuen inolako laguntza ez duen “patera” batean ontziratuta egoteak arriskuan egotea suposatzen zuela⁴⁶. Baita ere, AGak 1312/2002ko epaian, uztailak 8koan, adierazten du pertsonen bizitza eta osotasun fisikoa arrisku larrian dagoela “patera” bidez egindako bidaia batean, bidaia luzea delako eta baldintza arriskutsuetan egiten delako⁴⁷. Erreskatea egiteko betebeharrak erreskatatutako pertsonak leku seguru batean lehorreratzea suposatzen du. Hau da, erreskate bat amaitutzat eman ahal izateko erreskatatutako pertsonak haien giza eskubideak bermatuta egongo diren Estatu batean lehorreratzea esan nahi du. Ildo honetan, Espainiako Auzitegi Nazionalaren 5394/2007 epaiak, abenduaren 12koak gogorarazten digu SAR Hitzarmenak lehorreratzeko “leku seguru”-ari buruz dioena⁴⁸.

⁴⁴ Espainiako Konstituzioaren 96. artikulua: “*Baliozkotasunez egindako nazioarteko itunak, Espainian ofizialki argitaratu ondoren, barne-ordenamenduaren parte izango dira*”. Italian “*Legge 11 dicembre 1984, n. 839*”ren 1.artikulua: “*Italiako Errepublikaren lege eta dekretuen bilduma ofizialean sartu eta argitaratuko dira: f) Errepublikak nazioarteko harremanetan hitzematzen dituen akordioak, akordio sinplifikatuak barne, baldin eta aurreko b) eta d) letren arabera argitaratu behar ez badira*”.

⁴⁵ Itsas Nabigazioari buruzko 14/2014 Legearen 183.3. artikulua: “*Kapitaina itsasoan arriskuan dauden giza bizitzetara laguntzera behartuta dago, baldin eta joan badaiteke ontziarentzat, haren tripulazioarentzat edo bidaiarientzat arrisku larrikeria eragin gabe*”.

⁴⁶ Auzitegi Gorenaren 13/2018, urtarrilak 15eko, epaia: “*bizitarako arriskua laguntza edo sostengu gehigarrikeria ez duen patera bidezko zeharkaldi bati datzekio*” (Auzitegi Gorena, 2018ko urtarrilak 15).

⁴⁷ Auzitegi Gorenako 1312/2002ko epaia, uztailaren 8koa: “*Patera batean egiten den pertsonen garraioa arrisku larria da bidaiarien osasunarentzat eta osotasunarentzat, baita haien bizitzarentzat ere. Iraupen luzeko bidaia baldintza arriskutsuetan egiten da. Hori ez da presuntzio hutsa, arriskua nabarmen eta maiz baieztatzen duen errealitatea baizik*” (Auzitegi Gorena, 2002ko uztailak 8).

⁴⁸ Arrazoibide juridikoen 8. atalean (Auzitegi Nazionala, 2007ko abenduak 12).

Estatuko araudiarekin batera, itsasertza duten autonomia-erkidegoek haien estatutuetan itsas salbamenduari buruz duten eskumenak aipatu behar ditugu. Euskal Autonomia Erkidegoko, Galiziako, Kataluniako, Kanariar uharteetako, Balear uharteetako eta Andaluziako Autonomia Estatutuek itsas salbamendua hartzen dute eskumen gisa⁴⁹. 2/2011 Legegintzako Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legeak adierazten duen bezala⁵⁰, haien Autonomia Estatutuetan onartu izanez gero, AAEE-k Estatuaren legeria betearaziko dute itsas salbamenduari dagokionez.

Espanian, 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, irailaren 5ekoa, Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bateginak onartzen duenaren arabera, Estatuko Administrazio Orokorra izango da itsasoan giza bizitzak salbatzeko zerbitzu publikoa emango duen administrazioa⁵¹. Honekin batera, Itsasoan giza bizitzak Salbatzeko Zerbitzu Berezien Plan Nazionala sortzea aurreikusten da. Salbamentu operazioak Itsasoko Salbamendu eta Segurtasun Elkartek, Sustapen Ministeritzari atxikita dagoenak, egingo ditu lege honen 268. artikulua arabera.

Aipatu beharra dago ere, Espainiako Konstituzioak ez diela atzerritarrei asiloa bermatzen, baina Konstituzioaren I. Tituluak aipatzen dituen askatasun publikoez gozatu dezaketela aipatzen duela 13. artikuluan. Atzerritarren egoera juridikoa arautzen duten atzerritartasun-arauetara bideratzen gaitu Konstituzioak eta bi lege aipatu behar ditugu; alde batetik, 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa, eta bestetik, 12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa

⁴⁹ 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Autonomia Estatuarena Euskadirentzat, 12.10 artikulua; 1/1981 LO, apirilaren 6koa, Galiziarako Autonomia Estatuarena, 29.3 artikulua; 1/2018 LO, azaroaren 5ekoa, Kanarietako Autonomia Estatutua erreformatzekoa, 149.2 artikulua; 1/2007 LO, otsailaren 28koa, Balear Uharteetako Autonomia Estatutua erreformatzekoa, 32.12 artikulua; 6/2006 LO, uztailaren 19koa, Kataluniako Autonomia Estatutua erreformatzekoa, 132.3 artikulua; 2/2007 LO, martxoaren 19koa, Andaluziarako Autonomia Estatutua erreformatzekoa, 66.2 artikulua.

⁵⁰ Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen 264.5 artikulua: *“Beren autonomia-estatutuetan eskumen propiotzat hartu duten autonomia-erkidegoei dagokie, haien itsasertzari dagokion lurralde uretako itsas salbamenduei dagokionez, Estatuaren legeria betearaztea. Eskumen hauen barruan zehatzeko ahala dagoela ulertzen da”*.

⁵¹ 2/2011 Legegintzako Errege Dekretua, irailaren 5ekoaren 264. artikulua: *“Itsasoan giza bizitzaren salbamendurako eta itsas ingurunearen kutsaduraren aurkako borrokarako zerbitzu publikoa Estatuko Administrazio Orokorra emango du, bai eta gainerako administrazio publiko eskudunek ere, kasuan kasuko plan eta programen bidez antolatutako koordinazio-printzipioarekin bat etorriz”*.

arautzen dituen. Bi legeek “non refoulement” printzipioa berresten dute 34. eta 5. artikuluetan hurrenez hurren.

b) Italiako Errepublika

Italiak, “Codice della navigazione” lege testuan erreskatea zein laguntza ere ezartzen ditu kapitainen betebeharrak gisa. Alegia, ez da behar itsasontzia maniobrak egiteko guztiz ezgaia izatea kapitainek itsasontzi horretan bidaiatzen duten pertsonak lagundu behar izateko⁵². Gainera, beharrezkoa denean laguntza edo erreskatea egiten ez duen kapitainak kartzelara joateko arriskua dauka⁵³. Kode honek ez die solik itsasontzien kapitainei erreskatatzeko beteharra ezartzen baizik eta Itsas Agintaritzari ere. Arriskuan dagoen ontzi baten, hondoratze baten edo beste ezbehar baten berri duen bezain laster Itsas Agintaritzak laguntzera joan behar du (69. artikulua). Itsasontzi bat erreskatatzeko edozein pertsona dituen baliabide guztiekin ez badu laguntzen sorospena ez duela egiten ulertuko da eta ondorioz, sorospen omisioagatik kartzela zigorra jaso dezake (1113. artikulua). Ildo honetan, Italiako Kode Penalak 593. artikuluan sorospen omisioa zigortzen du.

Erreskateak egingo dituen administrazioari dagokionez, 1994ko irailaren 28ko Errepublikako Presidentearen Dekretuaren 3.1 a) artikulua zehazten du “Comando generale del Corpo delle capitanerie di porto” izango dela erreskate zerbitzuak aurrera eramango dituen erakunde publikoa. Erakunde publiko hau, Garraio eta Nabigazio Ministeritzaren pean dagoena, izango da Italiako SAR eremuan itsas bilaketa eta salbamenduko operazioak antolatzeaz arduratuko dena. Horretarako 1996ko azaroak 25ean Itsasoan bilaketa eta salbamendurako Plan Nazionalaren behin betiko edizioa argitaratu zen (“*Piano Nazionale per la Ricerca ed il Salvataggio in Mare. Ministero dei trasporti e della navigazione*”). Plan honetan, erakunde honek dituen zereginenez gain, behar den momentuetan beste administrazioen lankidetzaren obligazioa zehazten

⁵² “Codice della navigazione”-ren 489. artikulua: “*Itsasoan edo barruko uretan galtzeko arriskuan dauden ontzi edo aireontziei laguntzea nahitaezkoa izango da, ahal den neurrian salbamendu-ontziarentzat, tripulazioarentzat eta bidaiariarentzat arrisku larrik eragin gabe (...), itsasontzian edo aireontzian pertsonak arriskuan daudenean*”. 490. artikuluan erreskatatzeko obligazioa ezartzen da: “*Arriskuan dagoen ontzia edo aireontzia, hurrenez hurren, maniobrak egiteko eta hegaldiari berriro ekiteko guztiz ezgai direnean, salbamendu-ontziaren kapitainak erreskatatzen saiatu beharko du, aurreko artikuluan adierazitako baldintzetan eta mugen barruan, edo, hori ezinezkoa bada, ontzian dauden pertsonak erreskatatzen saiatu beharko du*”.

⁵³ “Codice della navigazione”-ren 1158. artikulua sorospena ez ematea zigortzen du urtebetetik zortzi urte arteko kartzela zigorrarekin.

du; alegia, “Guardia di Finanza”-ren, “Carabinieri”-en, Estatuko Poliziaren eta, eskumen- eta jurisdikzio-maila guztietako, Estatuko beste kidego/organoetako agintarien kooperazioa.

Espanian ez bezala, Italiako Konstituzioak asilo eskubidea bermatzen die jatorrizko herrialdean Italiako Konstituzioak bermatzen dituen askatasun demokratikoen egikaritza efektiboa bermatuta ez duten pertsoneri⁵⁴. Inmigrazioa eta atzerritarren egoera arautzen duen araudiak, “Testo Unico sull’Immigrazione” izenekoak, bere 19. artikuluan, pertsona bat tratu txarrak jaso ditzakeen herrialdera kanporatzeko debekua ezartzen du ere bai.

4. Hausnarketa juridikoa

4.1 Itsas-zuzenbide administratiboaren erabilera mugen kontrolerako.

Estatuak itsasoko zuzenbide administratiboaz baliatzen dira GKEen itsasontziei nabigatzera eta migratzaileak erreskate lanak zailtzeko, eta bide batez, mugak kontrolatzeko.

Alde batetik, itsasontziak portuetatik ateratzeko zailtasunak jartzen dituzte, adibidez, nabigatzeko “despatxoa” ez emanaz. Despatxo administratiboaren bidez, Itsas Barrutiak egiaztatzen du itsasontziek, aisialdikoak barne, egin nahi dituzten nabigazioak eta trafikoak egin ahal izateko legezko arauak eskatzen dituzten baldintza guztiak betetzen dituztela. Baita ere, eska daitezkeen legezko baimenak dituztela eta tripulazio egokia dutela, kopuruari eta titulazioari dagokienez. Espainian prozesu administratibo hau beharrezkoa da Aita Mari bezalako itsasontziak nabigatzera ateratzeko⁵⁵. 2018ko urrian, Aita Marik bere lehenengo despatxoa eskatu zuen Italiako eta Maltako SAR eremura joateko. Espainiar Gobernuak ezeztatu zion, Italiako eta Maltako portuen itxierak

⁵⁴ Italiako Konstituzioaren 10. artikulua: *“Atzerritarrak, bere herrialdean Italiako Konstituzioak bermatutako askatasun demokratikoak eraginkortasunez baliatzea eragozten bazaio, asilo-eskubidea du Errepublikako lurraldean”*.

⁵⁵ 2000ko urtarrilaren 18ko Agindua, Ontziak Abiarazteari buruzko Erregelamenduaren 3.1 artikulua: *“Xedapen hau nahitaez bete beharko dute Espainiako ontzien kapitainek, jabeek edo ustiatzaileek, ontzi-enpresek eta kontsignatarioek (...)”*.

erreskatatuen lehorreratzea galaraziko zuela justifikatuz. Espainiako gobernuak erreskatatutako pertsonak lehorreratzeko SAR eremuen arteko akordioa ez zegoela argudiatu zuen. Itsas Salbamentu Humanitarioko GKEak, Aita Mari itsasontzia kudeatzen duena, Herriaren Defendatzailearen aurrean zalatu zuen Espainiako gobernuak pertsonen erreskateak egiteko baimenak ematean jarritako oztopoa (El Mundo, 2019ko ekainak 12). Herriaren Defendatzaileak, 2019ko maiatzaren 21ean Merkataritza Itsasketako Zuzendaritza Nagusiari bidalitako idazki batean adierazi zuen bezala *“Akordiorik ezak eragin ditzakeen atzerapenen eta botere publikoen koordinazio faltaren ondorioak ezin dira salbatzaileen eta salbatuen kalterako izan”* (EITB, 2019ko ekainak 12).

Beste aldetik, portutik ateratzea lortzen dutenean haien bidaian erreskate eta salbamentu operaziorik egin ez dezaten santzio administratibo eta itsasontziaren administrazio-atxiloketarekin mehatxatu egiten dituzte. Neurri hauen sustatzaileetako bat Italiako Estatua da. Giuseppe Conteren lehenengo gobernuak sortu zenetik 2018an, *“La Lega”* eta *“5 Stelle”* indar politikoen koalizioaren bidez, Italiako gobernuak haien politiken erdialdean kokatu dute legez kanpoko migrazioaren geldiketa. Giorgia Meloniren gobernuaren urtarrilak 2ko Lege-Dekretuak GKEen itsasontzien lana oztopatzen du, besteak beste, debekatzen duelako erreskate bat baino gehiago aldi berean egitea⁵⁶. Dunja Mijatovic, Europako Kontseiluaren komisarioak adierazi bezala, dekretu honek itsasontzi humanitarioak behartzen ditu⁵⁷ arriskuan dauden beste itsasontzien larrialdi deiak ez entzutera, nahiz eta erreskate bat baino gehiago egiteko prestatuta dauden itsasontziak izan, jada erreskatatu duten jendea itsasontzian izanda gelditu gabe gobernuak esleitutako portura joan behar dutelako lehorreratzea egiteko. Dekretu honek, kapitain guztiei nazioarteko legediak ezartzen dien laguntzeko betebeharra urratzea ekarriko luke (Mijatović, 2023), baina aldi berean, Dekretu honen kontra egitekotan itsasontzietako kapitainek isunak eta itsasontziaren geldiketa administratiboa jaso dezakete⁵⁸.

⁵⁶ *“Decreto-Legge 2 gennaio 2023 n. 1”-en 2 bis d) artikulua: “Agintari eskudunek esleitutako lehorreratze-portura berehala joango da, salbamendu operazioa amaitutzat emateko”.*

⁵⁷ *“GKEek itsasoan salbamendu anitzak egitea eragozten du xedapenak, eta inguruan beste laguntza dei batzuk ez egitera behartzen ditu, baldin eta ontzian pertsonak erreskatatu badituzte, nahiz eta oraindik beste erreskate bat egiteko gaitasuna izan. Xedapen hori betez gero, GKEen ontzi-jabeek ez lituzkete nazioarteko zuzenbidearen araberako erreskate-betebeharrak beteko”* (Mijatović, 2023).

⁵⁸ 2023ko urtarrilaren 2ko Lege Dekretuaren (*“Decreto-Legge 2 gennaio 2023 n. 1”*) 2-quarter artikulua: *“2. paragrafoan zehaztutako neurria betetzen ez den kasuetan, egitatea delitua denean zehapen penalak ezartzearen kalterik gabe, 10.000 eurotik 50.000 eurora bitarteko zenbatekoa ordaintzeko administrazio-zehapena aplikatuko zaio itsasontziko kapitainari”.*

Aipatzekoa da ere bai, goian azaldu bezala, Espainiako gobernuak “Open Arms”-ek erreskateak egin zitzala saihesteko 14/2014 Legea, uztailaren 24koa, Espainiako uretan nabigatzeko araubideari buruzkoa, erabili zuela justifikazio gisa⁵⁹. Merkataritzako Marinaren Zuzendaritza Nagusiak bidalitako kartan itsasontziak segurtasun araubidea ez zuela betetzen adierazi zion. Segurtasun araubidea bete barik erreskateak egiten jarraituz gero itsasontzia gelditua izateko arriskua zuen. Espainiako gobernuak artikulua honen interpretazio estentsiboa eta negatiboa egin zuen Proactiva Open Arms GKEari erreskateak egitea debekatzeko. Nazioz gaindiko arauen sendotasun ezak, kasu hauetan, Estatuari diskrezionalki jokatzeko aukera ematen die GKEen lana oztopatua izateko arriskua handituz (Hellman, 2020).

4.2 Zuzenbide penalaren bidez kriminalizatzea

Oztopo administratiboekin batera, Europar Batasuneko Estatuak “elkartasunaren kriminalizazioa” izendatua izan dena ere bai, alegia, etorkinei laguntza ematen dieten pertsonen kontrako jarrera errepresibora (Martínez, 2019). Pertsona hauek ematen duten laguntza edozein motatakoa izan daiteke; bilaketa eta erreskate operazioak, harrera jarduerak edo janaria, etxebizitza edo zerbitzuak. Hauetako edozein ekintzagaratik zigortuak izan daitezke. Horrela, arriskuan dauden migratzaileei laguntzeko duten betebeharrak, eta kasu askotan, juridikoa, alde batera uzten dute Estatuak.

Elkartasunaren kriminalizazioa posiblea da hura justifikatzen duen esparru juridiko bat dagoelako. Hau ulertzeko ezinbestekoa da, lehenik eta behin, inmigranteen trafikoa eta inmigrazio irregularren bultzaketa zer den ulertzea (Martínez, 2019).

Lurreko, Itsasoko eta Aireko Migratzaileen Legez Kontrako Trafikoaren aurkako Protokoloak, Nazioz Gaindiko Delinkuentzia Antolatuen aurkako Nazio Batuen Konbentzioa osatzen duenak, etorkinen trafikoa definitzen du onura ekonomikoa edo

⁵⁹ Konkretuki lege honen 100. artikulua: “*Aurreko artikuluetan aipatutako ikuskapen edo kontroleratik ondorioztatzen bada ontzia edo itsasontzia ez dagoela nabigatzeko moduan edo ez duela betetzen segurtasun- eta kutsadura-araudia zerbitzuak emateko edo nabigazioak egiteko, bertan geldiarazi ahal izango da armadoreak akatsak zuzendu arte*”.

beste motatako onura lortzeko asmoz Estatu bateko kide ez den pertsona bati Estatu kide horretan sartzeko erraztasunak ematea gisa⁶⁰. Definizio honek, finantza-onura edo beste onura material baten elementua barne hartzen duenez, interpretatu genezake erantzukizunetik kanpo uzten dituela motibazio altruistak dituzten GKEekin lan egiten dituzten pertsonak aurrera eramaten dituzten ekintzak; alegia, itsasoan egindako erreskateak (Nazio Batuak, 2020ko abendua), baina ez da horrela gertatzen.

Inmigrazio irregularraren bultzaketari dagokionez, aipatu beharra dago, alde batetik, Kontseiluaren 2002/946/JAI Esparru Erabakia, 2002ko azaroaren 28koa, sarbiderako, zirkulaziorako eta egonaldi irregularrerako laguntza zigortzeko esparru penala indartzeari buruzkoa; eta bestetik, Kontseiluaren 2002/90/EE Zuzentaraua, 2002ko azaroaren 28koa, sarrera, zirkulazio eta egonaldi irregularrerako laguntza definitzeari buruzkoa. Zuzentaru eta erabaki hauen bidez Estatuak behartuta daude estatu kide baten legedia⁶¹ urratuz atzerritar bati estatu kide horretan sartzeko edo igartzeko nahita laguntzen dion edozein pertsona zigortzera⁶². Baita ere, atzerritar hori estatu kide baten lurraldean geratzen nahita laguntzen badio⁶³. EBk edozein estatu kide batean legez kanpo sartzeko edozein mesede zigortuz, muga itxien migrazio-politika ezartzeko zigor-zuzenbidea tresna gisa erabiltzen du (Martínez, 2019). EBko zuzentarauek eta erabakiek ez dute ezartzen jarrera solidarioak zigortu behar direnik baina ez dute ezta ere zehazten zeintzuk kontsideratu daitezkeen ekintza solidarioak eta zeintzuk ez. Estatu kide bakoitzaren esku uzten dute arrazoi humanitarioengatik jarduten duten erakundeak edo pertsonak ez zigortzea (Hernandez, 2018ko maiatzak 17). Europar Batasuneko migrazio eta asilo direktiben lausotasunak eta legezko ziurgabetasunak gizarte zibilaren epaiketa okerra dakar (Penchaszadeh & Sferco, 2020).

⁶⁰ Lurreko, Itsasoko eta Aireko Migratzaileen Legez Kontrako Trafikoaren aurkako Protokoloaren 3. a) artikulua: *"Migratzaileen legez kontrako trafikoa da pertsona bat estatu kide batean legez kanpo sartzeko erraztea, baldin eta pertsona hori ez bada estatu horretako nazionala edo egoiliar iraunkorra, zuzenean edo zeharka finantza-onura bat edo bestelako onura material bat lortzeko"*.

⁶¹ Atzerritarrek sartu edo igartzeari buruzko Estatuko legeriari erreferentzia egiten dio. Espaniako kasuan "4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa". Italiako kasuan *"Testo unico delle disposizioni concernenti la disciplina dell'immigrazione e norme sulla condizione dello straniero"* 1998ko uztailaren 25eko Lege Dekretua.

⁶² Kontseiluaren 2002ko azaroaren 28ko 2002/90/EE Zuzentaruaren 1.1 a) artikulua: *"Estatu kideek zehapen egokiak onartuko dituzte: a) Estatu kideren bateko herritarra ez den pertsona bati, atzerritarren sarrerari edo joan-etorriari buruzko Estatuko legeria urratuz, estatu kideren bateko lurraldean sartzen edo haren bidez ibiltzen nahita laguntzen dion edozein pertsonaren aurka."*

⁶³ Kontseiluaren 2002ko azaroaren 28ko 2002/90/EE Zuzentaruaren 1.1 b) artikulua: *"Estatu kideek zehapen egokiak onartuko dituzte: b) estatu kideren bateko herritarra ez den pertsona bati estatu kideren bateko lurraldean geratzen nahita eta irabazi-asmoarekin laguntzen dion edozein pertsonaren aurka, atzerritarren egonaldiari buruzko Estatuko legeria urratuz."*

Giza Eskubideak eta Mundu Osoan Aitortutako Oinarrizko Askatasunak Sustatzeko eta Babesteko Gizabanakoen, Taldeen eta Erakundeen Eskubide eta Betebeharrari buruzko NBERen Adierazpenaren arabera, persona orok du, banaka edo taldeka, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babestu eta gauzatzeko ekintzak sustatzeko eskubidea (1. artikulua) eta gainera, Estatuak giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak babestu, sustatu eta gauzatzeko erantzukizun nagusia eta betebeharra dute (2.1 artikulua). Giza eskubideak ezin dira gauzatu hauek babesteko lan egiten duen gizarte zibilak bere lana egiteko espazio egokia, segurua eta irekia ez badu. Estatuaren gehiegizko kontrolak, esku-sartzeak eta diskriminazioak GKEei ezartzen dieten oztopo praktikoak gero eta gehiago zailtzen du gizarte zibilarentzako gune ireki eta osasungarria mantentzea eta beraz, giza eskubideen babeserako lan egitea (Nazioarteko Amnistia, 2019ko otsailak 21). Rodrigo de Larruceak (2019, p. 343) adierazi moduan, *“Egun hauetan modu esponentzian larriagotzen ari den arazo global gisa tratatzen hasi behar dugu egoera, eta konponbide arinak, eraginkorrak eta inplikaturako nazioko eta nazioarteko eragile guztiek koordinatuta hartutakoak behar ditu.”*

4.3 Schengen espazioaren mugen kontrola.

Europar Batasuna Estatu subirano ezberdinen artean sortutako integrazio globalaren emaitza da. EBko Estatu kideek haien subiranotasunaren zati bat Europar Batasuna sortzeko eman dute, identitate europarra duen komunitate bat sortze aldera. Komunitate honen lorpen oso garrantzitsua “Schengen akordioa” izan da. 1985ean sinatutako Schengen akordioaren bidez, Europar Batasuneko Estatuaren artean askatasun, segurtasun eta justizia espazio bat sortu zen, eta akordio honen sinatzaileen arteko barne mugen kontrolak desagertu ziren (Donadio eta Barbero, 2019). Europar Batasunak sortutako barne mugen kontrolerako eredu propio honek, Estatu kideen arteko mugen zaintza- eta kontrol-eginkizunak berrantolatzeaz gain, EBaren kanpo mugen kontrolerako politika berriak sortu beharra ere ekarri zuen⁶⁴. Barne mugen desagertzearekin, ordena eta egonkortasuna mantentzeko eztabaida ireki zen. Kanpo mugak indartzeko justifikazioa barneko askatasun espazio segurua mantentzeko beharra izan zen. Argudio honen

⁶⁴ Horretarako EBFTren V. Tituluak barne mugen kontrolaren ondorioz sortutako “Askatasun, segurtasun eta justizia espazioa” arautu zuen. Konkretuki, 77.1. c) artikulua aurreikusten du kanpoko mugak kudeatzeko sistema integratu baten eraketa.

ondorioz, EBak sortutako araudien oinarrian segurtasuna bermatzea bilatu zen (Zapata-Barrero, 2012). Hirugarren estatuetak nazionalak EBko kanpo muga bat zeharkatu ostean Schengen espazioan zehar zirkulazio askea izateak, kanpo mugen indartzea justifikatu zuen (Garcialoro, 2008). Mediterraneoko migrazio-krisiak, alegia, errefuxiatu eta migratzailen etengabeko migrazio-presioak, Europako Mediterraneoko mugen ahultasuna agerian usteaz gain, itsas eremu honetan gertatzen diren giza eskubideen urraketa larriak ezagutarazi ditu. Honek, Schengengo sistemak sortutako egitura kaltetu du eta ezarritako barne/kanpo mugen oreka berrantolatzeko premia sortu du (Del Valle, 2020b).

Schengen sistemaren eraginpean Mediterraneoko muga ez da modu egokian kontrolatu, eta gainera, ez dira Europara bide honetatik ailegatzen saiatu diren migratzaileak erreskatatzeko tresna egokirik bermatu. Mediterraneoko krisi humanitarioak agerian utzi du gaur egun dugun esparru juridikoaren konplexutasunak Europako estatu kideek eta EBk arazo honi ematen dioten trataera okertu duela. Egungo esparru juridikoan akats ezberdinak identifikatu eta aipatu genitzake; besteak beste, Nazioarteko Zuzenbideak etorkinen erreskatearen erregulazioan dituen gabeziak, Salbamendu- eta erreskate-guneen (SAR) arazoak, eta, bereziki, etorkinen eta errefuxiatuen lehorreratzeari eta giza eskubideen babesari buruzko gaia, Estatuaren eta Europako itsasontziek itsasoan jarduten dutenean duten helburuaren argitasun faltak edo FRONTEX agentziaren bidez egindako operazioen mugak (Del Valle, 2020a).

Lehorreratzeako “leku seguru” baten definizio juridiko ezaren edo erreskateari eta lehorreratzeari buruzko nazioarteko betebeharren zehazgabetasunen ondorioz, esan genezake Nazioarteko zuzenbidea⁶⁵ ez dela nahikoa izan sortutako migrazio-krisiari erantzun egokia emateko. Ildo honetan, Europar Batasunak nazioarteko zuzenbideak izan dituen hutsune juridikoak estaltzen saiatu da⁶⁶ baina itsasoko inmigratioari buruzko araudi bateratu bat sortu ordez, araudi ezberdinak sortu dira behar izan diren momentuetarako. Inmigratioa Estatuaren eta EBaren artean partekatutako eskumena denez⁶⁷, Estatuaren arteko akordio ezak Europar Batasuneko araudiaren gabeziak agerian

⁶⁵ “Nazioarteko Hitzarmenak” atalean aipatutako SOLAS Hitzarmenak eta SAR Hitzarmenak.

⁶⁶ Aipatu genitzake, FRONTEXen erregulazioa, mugetan esku-hartze azkarreko taldeei eta agente gonbidatuen funtzioei buruzko 863/2007 Erregelamendua (Rabit), Schengen Muga Kodeari buruzko 2016/399 Erregelamendua, edo Mugak Zaintzeko 1052/2013 Erregelamendua (Eurosur).

⁶⁷ Begiratu EBFren 4. j) artikulua.

jartzen ditu. Honek, Mediterraneoko migrazioaren erronkak eskatzen duen Estatu kide guztien erantzun bateratua ematea ezinezkoa egiten du (Del Valle, 2020a).

Migrazio-krisiak agerian utzi zuen kanpo-mugen kudeaketa bateratuaren esparruan aurrera egin behar zela, Estatuak haien kanpo mugak indibidualki kudeatzeak sortutako hutsuneak betetzeko helburuarekin (Soler, 2017). Ildo honetan, 2016ko urrian EBko kanpo mugak zaintzeko helburuarekin Muga eta Kostaldeetako Guardiaren Europako Agentzia (FRONTEX agentziaren modernizazioa) sortu zen eta 2016/1624 Erregelamenduaren bidez arautu zen. Erregelamendu honen bidez Europar Batasunari Estatu kideekin batera itsasoan erreskateak egiteko eskumena eman zitzaion⁶⁸. Hala ere, EBak aurrera eramandako operazio ezberdinen helburua mugen kontrola izaten jarraitu du⁶⁹.

4.4 Esternalizazioa

EBFTren 79. artikulua migrazio-fluxuen kudeaketa eraginkorra, legez kanpoko inmigrazioaren eta gizakien salerosketaren aurkako borroka aurreikusten du. Honek, hirugarren estatuarekin egindako akordioak barne hartzen ditu. Ildo honetan, lan honetan azaldu dugun bezala, Europar Batasunak, inmigrazioaren gaian, hirugarren estatuarekin lankidetzak akordioak egin ditu. Lan honetan zehar aipatu ditugun EU-Tunisia, Italia-Libia edo Espainia-Maroko akordioek migrazio-krisiari erantzuna emateko izan dira baina emandako erantzuna giza eskubideak errespetatzetik urrun, Europa etortzeko migrazio-fluxuen geldiketa bilatu dute. Hirugarren estatu hauetan Europako zuzenbidea eta baloreak ez direnez errespetatzen egindako lankidetzak akordioak nazioarteko eta europako zuzenbidearen eta giza eskubideen urraketan oinarrituta daude.

Adierazi dugunez, Estatuaren erantzukizuna da itsasoan arriskuan dagoen edozein itsasontzi erreskatatzea. Europar Batasuneko Estatuak erreskate betebeharrak hau beste estatuak lagatu diete aipatutako alde biko akordioaren bidez. Honi EBko mugen kontrolen esternalizazioa deritzo. Migrazioa kontrolatzeko estrategia berri honen bidez, Estatuaren

⁶⁸ Erregelamendu honen 4. eta 8. artikulua zehazten dute zeintzuk diren eskumenak eta egin beharrekoak.

⁶⁹ Honen adibide da EUNAVFOR-MED Sophia operazioa. Operazio honen helburua pertsonen trafikatzailen kontra borrokatzea da baina ez inmigranteak erreskatatzea (Del Valle, 2020a).

mugak kontrolatzeaz gain Europako estatuetan eragina duten migrazio-ibilbideak kontrolatzen dira jatorrizko eta igarotze-herrialdeetan. Lisboako Tratatuaren argitaratu zenetik, Europar Batasuna alboko estatuarekin harremanak sakonago arautzen saiatu da, auzotasun-politikak eta Europara datozen pertsonen exodo masiboa geldiarazteko neurriak ezartzeko helburuarekin. Esternalizazioak migrazio- eta asilo-politiken kudeaketa hirugarren estatuera lekualdatzen du, eta egoera irregularrean dauden errefuxiatuen eta etorkinen etorrera saihesteko eta geldiarazteko helburua du (Abrisketa, 2017).

Hirugarren estatuarekin egindako aldebiko akordio hauen bidez, Europar Batasunak legez kanpo Europara sartutako migranteak Europako Estatu kide ez den estatu batera itzultzen ditu. Itzulera hauek egin ahal izateko hirugarren estatu hori “leku segurua” kontsideratua izan behar da. Ezinbesteko premisa juridikoa da Genevako Konbentzioak adierazten duen “non refoulment” printzipioa babesteko. Migranteen giza eskubideak Tunisian, Libian edo Marokon arriskuan edo mehatxatuak egonez gero, akordio hauek ez lukete izango lege-oinarririk. Hala ere, GKEek⁷⁰ ez dute uste herrialde hauek “leku seguruak” kontsideratu daitezkeenik. Honez gain, nazioarteko babesa eskatzeko eskubidea kolokan jartzen da akordio hauekin, EBak mugen esternalizazioarekin batera asilo-eskarien kudeaketa esternalizatzen duelako ere. Asiloa eskatzeko eskubidea Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak⁷¹, Genevako akordioak eta Genevako Akordioa garatzen duen New Yorkeko Protokoloak babesten dute. Libiako estatuak, adibidez, ez du asilo eskaria egiteko eskubidea aitortzen⁷² eta pertsona guztiak “legez kanpoko migratzaileak” kontsideratzen dira. Honek agerian uzten du Libian errefuxiatu eta asilo eskatzaileen giza eskubideak ez direla errespetatzen, eta Libia “leku segurua” dela kolokan jartzen du (Cuttitta, 2019).

⁷⁰ Human Right Watch-ek ez du uste Tunisia errefuxiatu eta asilo eskatzaileentzako leku segurua denik (Human Rights Watch, 2016ko martxoak 3). UNHCR-ek ez du ezta ere Libia leku seguru gisa kontsideratzen (UNHCR (Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisioa), 2020ko iraila). CEAREk ere, Marokon giza eskubideen urraketak ematen direla adierazten du (CEAR, 2016ko azaroa).

⁷¹ Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 14.1 artikulua: “*Jazarpenaren kasuan, pertsona orok du edozein herrialdeetan asiloa bilatzeko eta horretaz gozatzeko eskubidea*”.

⁷² Libia ez da Genevako Konbentzioaren sinatzailea eta ondorioz, ez du bere legeri nazionalean asilo eskubidea (ezta errefuxiatuei aitortutako beste eskubideak) onartzen eta aplikatzen (Palm, 2017ko urriak 2).

4.5 Estatu kideen lankidetzarik eza

Europar Batasuneko Funtzionamenduaren Tratatuaren 67.2 artikulua araberan, mugetako kontrolei, asiloari eta inmigrazioari buruzko Europar Batasuneko politikek Estatu kideen arteko elkartasuna izango dute oinarri gisa. Honez gain, 80. artikulua adierazten du politika hauen betearazpena ere, elkartasunaren eta estatu kideen artean erantzukizunaren banaketa ekitatiboaren printzipioaren arabera arautuko dela. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren arabera⁷³ elkartasun eta erantzukizunaren banaketa ekitatiboaren printzipioa Europako asilo-politiken printzipio gidaria da.

Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmenaren hitzaurrean asilo eskubidea bermatzeko nazioarteko elkartasunaren beharra aipatu bai, (4. paragrafoa), baina ez zen inolako neurririk hartu nazioarteko elkartasun hori eraginkorra izateko. Estatuak UNHCR Agentziarekin lankidetzan aritzen dira, finantziario bidez edo honek garatzen dituen programetan lagunduz, baina guztiz borondatezkoa da. Estatuak ez badira borondatez lankidetzan aritzen eta borondate hau lotesle izateko tresnarik ez badago, Mediterraneoko krisiaren ondorioak areagotzen dira. Europar Batasunak gaur egun duen Asilorako Sistema Bateratuak (CEAS gisa ezaguna dena) Dublin⁷⁴ sistema du oinarri gisa eta horrek, elkartasuna sustatzetik urrun, migratzaileen harrera-Estatua izendatzen du asilo eskariak aztertzeke arduradun gisa; alegia, Mediterraneo krisian, Grezia, Italia eta Espainia (Arenas Hidalgo, 2021).

Aurreko paragrafoan aipatu dugun bezala, Estatuak finantziarioaren bidez (elkartasun finantziarioa) edo programetan parte hartuz (elkartasun fisikoa) lagundu dezakete. Elkartasun fisikoa, praktikan, asilo-eskatzaileak edo errefuxiatuak hartzea da, gero Estatu kideetan birkokatzeko. EUREMA proiektua (EB barruan birkokatzeko Maltako proiektu pilotua) izan zen errefuxiatuak eta asilo eskatzaileak EBan kokatzeko lehen

⁷³ EBJAren (Sala Handia), 2017ko irailaren 6ko, Eslovakiako Errepublika eta Hungaria/Europar Batasuneko Kontseilua Sententziaren 291. paragrafoa: *“Europar Batasuneko estaturen bat edo batzuk larrialdi-egoeran daudenean, EBFren 78. artikuluko 3. paragrafoari jarraiki, xedapen horren indarrez estatu kide horren edo horien mesederako hartutako behin-behineko neurriek dakartzaten kargak, printzipioz, gainerako estatu kideen artean banatu behar dira, elkartasunaren eta erantzukizunak estatu kideen artean ekitatez banatzeko printzipioaren arabera, printzipio hori baita, EBFren 80. artikulua araberan, Europar Batasunaren asilo-politikaren printzipio gidaria”* (Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, 2017ko irailak 6).

⁷⁴ Nazioarteko lege bat da, eta pertsona batek Europako lurzoruan egindako asilo-eskaera bakoitzaren ardura EBko zein estatu kide hartzen duen zehazteko helburua du. 604/2013 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko ekainaren 26koa, hirugarren herrialde bateko nazional batek edo aberri batek estatu kide batean aurkeztutako nazioarteko babes-eskaera bat aztertzeke ardura duen estatu kidea zehazteko irizpideak eta mekanismoak ezartzen dituenak, arautzen du.

ekimen bateratua eta aldeanitzekoa. Proiektu honek ez zuen arrakasta handirik izan baina operazio mota hauek zituzten zailtasun teknikoak, juridikoak eta instituzionalak agerian uzteko balio izan zuen. 2015ean Mediteraneoko migrazio-krisia hasi zenean, Europar Batasuneko ateetara jo zuten asilo eskatzaile eta errefuxiatuak hartzeko larrialdietarako mekanismoa⁷⁵ martxan jartzea erabaki zen. Mekanismo hau eta ondorioz sortutako erabakiak⁷⁶ betebeharrekoak izan ziren Estatu kideentzako. Lehenengo aldiz, elkartasun eta erantzukizunaren banaketa ekitatiboaren printzipioa loteslea izan zen Estatu kideentzako. Hala ere, larrialdi egoera hori amaitu zenean ez zen EBko migratzaileen kokapena arautzeko politika amankomun bat sortu (Arenas Hidalgo, 2021).

2020an Migrazio eta Asilorako Europako Itun Berria aurkeztu zen. Itun horrek Estatuiei elkartasuna inposatu nahi zien. Sistema berri honek saihestu nahi zuen zenbait Estatu kidek migrazio-krisiekiko dituzten konpromisoak ez betetzea. Zenbait estatu kidek ez dute migratzaileak hartu nahi. Honek, Estatu kideen arteko elkartasun eta erantzukizunaren banaketa ekitatiboaren printzipioa urratzea dakar eta beste Estatu kideentzat lan karga handitzen du. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak adierazi zuen Estatu kide guztiek migratzaileen arretan parte hartu behar zutela⁷⁷ eta ildo honetan, itun honek “elkartasunaren betebeharra” ezarri zuen. Migratzaileak hartu nahi ez zituzten estatuak bi aukera eskaintzen zizkien: migratzaileen itzulketa operazioetan parte hartzea edo laguntza operatibo, logistiko edo ekonomiko batekin inplikatzeko, hala nola, errefuxiatu-kanpamentu baten eraikuntzarekin. Honekin, migratzaileak hartzetik haratago, beste aukera batzuk ematen zizkieten Estatu kideei migrazio-fluxuak sortzen ari ziren presioa kudeatzen laguntzeko. Itun hau Europako migrazioa kudeatzeko behin betiko eredia izango zela zirudien baina, gaur egun, oraindik ez da onartu. Honek, EBA egoera juridiko eta politiko ezegonkorrean jartzen du eta ondorioz, hegoaldeko Estatuak bakarrik egin behar diete aurre Mediterraneoko migrazio-fluxuei (Manchon, 2020).

⁷⁵ Mekanismo hau EBFTren 78.3 artikulua aurreikusten du: “*Estatu kide batek edo batzuek larrialdi-egoera bati aurre egin behar badiote, eta larrialdi-egoera horren ezaugarri nagusia bada hirugarren herrialdeetako herritarrak bat-batean etortzea, Kontseiluak, Batzordeak proposatuta, behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu kaltetutako estatu kideen onurari*”.

⁷⁶ Kontseiluaren 2015/1523 Erabakia, irailaren 14koa eta Kontseiluaren 2015/1601 Erabakia, irailaren 22koa. Hauen bidez, 160.000 pertsona Europar Batasuneko Estatu kide ezberdinetan kokatuak izango ziren bi urteko epean.

⁷⁷ Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren C-715/17 Batzordea/Polonia, C-718/17 Batzordea/Hungaria eta C-719/17 Batzordea/Txekiar Errepublika metatutako gaien Epaia 97. paragrafoa begiratu.

Gaur egun migrazio eta asiloa modu amankomunean kudeatzeko akordiorik ez egoteak Estatu kideen arteko harremanak tenkatzen ditu. Europar Batasuneko erantzun ezak hegoaldeko Estatu kideek migrazio-presio handia pairatzea sortzen du eta honek, beste arrazoi batzuekin batera, Espainiak eta, batez ere, Italiak migrazioaren aurkako aldebakarreko neurriak hartzea sustatu du. *“Inoiz baino beharrezkoagoa da ikuspegi aldeko eta aldeaniztun boluntarioa gainditzea ikuspegi komun baten alde, elkartasuna eta erantzukizunen banaketa ekitatiboa eskatzen duena, erronka partekatuei erantzun komuna emateko”* (Arenas Hidalgo, 2021, p. 29).

4.6 Europaren jardunbidearen eragina etorkinen giza eskubideetan

Europar Batasuneko mugen esternalizazioak eragin zuzena du Mediterraneoan erreskatatutako pertsonen giza eskubideetan. SAR Hitzarmenari egindako zuzenketek adierazi bezala, erreskate operazioa lehorreratzeko leku seguru batean amaitzen da. Leku seguru horrek pertsonen giza eskubideak errespetatuak eta babestuak dauden leku bat izan behar du. Hitzaurrean argitzen da SAR eskualdeko estatu arduradunari dagokiola zentzuzko epe batean lehorreratzeko leku seguru bat ematen dela bermatzea.

Europako oinarrizko eskubideen gutunaren arabera ezin da inor tratu txarrak sufrituko dituen estatu batera itzuli, kanporatu edo estraditatu⁷⁸. *Hirsi Jamaa and Others vs Italy* epaian Giza Eskubideen Europako Auzitegiak “non-refoulement” printzipioa errespetatzeko agindua ematen du⁷⁹. Epai horren arabera, migratzaileak estatu kide bateko bandera duten ontzietara igotzen badira, Estatuak migratzaileekiko betebeharrak bete behar dituzte; besteak beste, migratzaileen jatorrizko herrialdera ez itzultzeko betebeharra⁸⁰. Honez gain, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ere, *Sharifi and others vs. Italy and Greece* epaian azpimarratzen du Europar Batasuneko estatu kideek ezin dituztela alde batera utzi edo saihestu Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren

⁷⁸Europako oinarrizko eskubideen gutunaren 19.2. artikulua: *“Inor ezin izango da itzuli, kanporatu edo estraditatu heriotza-zigorra, tortura edo beste zigor edo tratu anker edo apalesgarri batzuk jasotzeko arrisku larria duen estatu batera”*.

⁷⁹ Printzipio honen urratzeak Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 4. Protokoloaren 4. artikuluan aurkakoa da. Artikulu honen arabera *“Atzerritarren kanporatze kolektiboak debekatuta daude”*.

⁸⁰ *“Gorteak berretsi egiten du 3. artikulua debekatutako tratuaren aurkako babesak betebeharra ezartzen diela estatuei, estatu hartzailean tratu hori jasotzeko benetako arriskua duen inor ez kanporatzeko”* (*Hirsi Jamaa and Others v. Italy*, 2012ko otsailak 23).

arabera hartutako betebeharrak asilo-eskatzailleak beste herrialde batera itzultzeko alde biko akordioak aplikatzean⁸¹. Asilo-eskatzailleen itzulketa egiteko, Estatuak legezko prozedurak jarraitu behar ditu, eta itzulketa egin baino lehen bermatu behar du helmugako herrialdeak pertsona horien duintasuna eta eskubideak, EBko legediaren eta Giza eskubideen Hitzarmenaren arabera, babestuak izateko berme egokiak eskaintzen dituela (Nazioarteko Amnistia, 2014). Nazioarteko Amnistiak⁸² edo NBEak⁸³ egindako txosten ezberdinek frogatzen dute Libiako lurretan, gaur egun, pertsonen eskubide oinarrizkoenak urratu egiten direla; besteak beste, tortura eta tratu laidogarriak, atxiloketa arbitrarioak, barneratze-zentroetako bizi-baldintza ankerrak, sexu-indarkeria edo lan behartua aipatzen dituzte. Nazioarteko babeserako eskubidea ezin da Estatuak diskrezionalki jarritako mugen mende egon (Cardini & Archain, 2021) eta gainera, aipatu beharra dago ere, Italiako Konstituzioak asilo eskubidea bermatzen diela haien jatorrizko herrialdetan Italiako Konstituzioak bermatzen dituen eskubide eta askatasunak bermatuta ez dituzten atzerritar guztiei⁸⁴. Beraz, kontraesankora dirudi Italiak asilo eskubidea defendatzea eta aldi berean, migratzaileak tratu txarrak sufritzeko aukera duten herrialde batera bidaltzea alde biko akordioen bidez.

Europara ailegatzeko saiatzen diren migranteak giza eskubideen urraketekiko kalteberak dira. Migratzaileen giza eskubideen urraketan artean egon daiteke eskubide zibil eta politikoak ukatzea, hala nola atxiloketa arbitrarioa, tortura edo berme prozesalik eza, baita eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak, edo osasun-, etxebizitza- eta hezkuntza-eskubidea urratzea. Europar Batasuneko Estatu kideen jarrera migratzaileen giza eskubideekiko gero eta murriztaileagoa da Italiako kasuarekin ikusi ahal izan dugunez. Europar Batasuneko identitate eta balioak babesteko ezinbestekoa da kanpo mugetan eta migrazio-fluxuen kontrolan atzerritarren giza eskubideak errespetatzea (Del Valle, 2020b).

⁸¹ *Sharifi and others v. Italy and Greece* sententziaren 224. puntua: "Estatuak beren immigrazio-politika subiranotasunez ezartzeko duten eskubidea auzitan jarri gabe, batzuetan alde biko lankidetzaren esparruan, eta Europar Batasuneko kide izatetik eratorritako betebeharrak zalantzan jarri gabe, Auzitegiak azpimarratu nahi du migrazio-fluxuen kudeaketan edo asilo-eskatzailleen harreran izan ditzaketen zailtasunek ezin dutela justifikatu Hitzarmenarekin edo Protokoloekin bateraezinak diren jardunbideak baliatzea" (*Sharifi and Others v. Italy and Greece*, 2014ko urriak 21).

⁸² Informe 2017/18 Amnistía Internacional: La situación de los derechos humanos en el mundo (2018).

⁸³ "Detained and Dehumanised" Report on human rights abuses against migrants in Libya (2016ko abenduak 13).

⁸⁴ Italiako Konstituzioaren 10. artikulua: "Atzerritarrek, bere herrialdean Italiako Konstituzioak bermatutako askatasun demokratikoak eraginkortasunez gauzatzea eragozten zaionean, asilo-eskubidea du Errepublikaren lurraldean, legeak ezarritako baldintzen arabera".

5. Ondorioak

Lan honetan, Mediterraneoako krisi migratorioaren testuinguruan, GKEek egiten duten lan humanitarioaren aurkako jarrera agerikoa dela frogatu nahi izan da. Lan honetan zehar aipatutako lege-esparru zabalak agerian uzten du itsasoan arriskuan dauden pertsonak erreskatatzea betebeharrak juridiko bat dela, bai itsasontzi pribatuek eta bai Estatuak ere bete behar dutena. Nazioarteko, Europar Batasuneko eta Estatu kideen araudiak agerian uzten dute pertsonen erreskatea itsasoan legezko betebeharra dela eta ondorioz, Estaturen zein Mediterraneoan aurkitzen diren itsasontzi guztien erantzukizuna dela egoera larrian dagoen edonor erreskatatzea eta salbu jartzea.

Europak bizi izan duen migrazio-krisiak tenkatu egin ditu Europako erakundeak eta estatu kideetako gobernuak. Migrazioa kudeatzeko sistema amankomun bat ez egoteak Estatu kideek alde bakarretik aritzea sortu du Europar Batasuneko Funtzionamendurako Tratatuaren 80. artikuluan adierazitakoaren kalterako. Europar Batasunak aldarrikatzen dituen balioetatik urrunduz, Estatu kideek ez dute elkartasunez jokatu. Mediterraneoako migrazio-fluxuen harrera-Estatuek migrazio-krisi honen presio handiena jaso dute eta elkartasunaren printzipioaren urratzeak Estatu hauen egoera sozio-politikoa tenkatu du ere, migrazio politika aurrerakoien eta giza eskubideekiko errespetuzkoen kalterako. Gainera, ez da Estatu kideen aldetik migrazio-fluxu mixtoen egoera kontuan hartu. “inmigrazio irregularraren” erreferentzia juridikoaren pean jarri dituzte pertsona migratzaile guztiak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 14. artikulua babesten duen asilo eskubidea urratuz.

Europar Batasuneko Estatu kideen segurtasuna lehenetsi da eta migrazioa zirkulazio askeko espaziorako mehatxutzat hartu da. Honen ondorioz, Europar Batasunak migrazioarekiko duen erantzukizuna hirugarren estatuei lagatzen saiatu da, besteak beste, hirugarren estatu horiekin egindako akordioen bidez, erreskateak egiteko betebeharra esternalizatuz. Lankidetzak akordio hauen bidez, Mediterraneoan bizitzak salbatzeaz eta asilo eskubideak kudeatzeaz arduratzen dira giza eskubideak eta asilo

eskubidea bera bermatuta ez dauden Estatuak. Zentzugabetasun honek kalte handia egin dio *“elkartasunaren, egoera sozial inklusiboaren, berdintasunaren bermeen eta pertsonen duintasunaren Europa zibilizatua”*-ren irudiari (Ferrajoli, 2019, p. 184).

Honekin batera, Estatu kideek migratzaileen bizitzak salbatzen diharduten GKEen aurkako jarrera errespresiboa izan dute eta eskura dituzten baliabide guztiak erabili dituzte, hala nola, zuzenbide administratiboa edo penala, lan humanitarioa oztopatzeko. Estatu kideek Nazioateko Zuzenbideak zehazten duenaren aurka jokatu dute, eta honek Europara ailegatzen saiatu diren migratzaileen giza eskubideen urraketa ekarri du.

2023ko otsailaren 10ean Aita Mari itsasontziaren bederatzigarren misioa hasi zen. Bi erreskate arrakastatsu egin zituzten; lehenengo operazioan erreskatatutako pertsonak Civitavecchia (Roma ondoan dagoena) portuan lehorreratu zituzten, eta bigarrean, Italiako gobernuak Ortonako portua esleitu zien. Aita Mari itsasontziko tripulazioak erreskateak egiten eta Mediterraneoko migratzaileen egoera salatzen jarraitzen du. Gogora dezagun Estatuaren betebeharra dela itsasoan arriskuan dauden pertsonen erreskatea; aldiz, Europako Estatu kideen gobernuek jartzen dizkieten oztopoen aurka, GKEek eta gizarte-mugimenduek hartu dute bere gain saihetsezina den obligazio hau (De Lucas, 2019). Izan ere, Juan Fernando López Aguilar eurodiputatuak Eurokamaran egindako agerraldi batean esan zuen bezala, *“itsasoan bizitzak salbatzea ezin da delitu izan”* (López, 2023ko urtarrilak 18, p. 12. interbentzioa).

Mediterraneoko errefuxiatuen krisi hau kolokan jarri du Europar batasuneko erakundeak eta Estatu kideetako gobernuak. Europar Batasuna ez da gai izan krisi honi erantzun solidario, bateratua eta giza eskubideekiko errespetuzkoa emateko; izan ere, EBko migrazio-politikek bizitzak salbatzea bilatzetik urrun mugen kontrola bilatu dute. Ildo honetan, Javier De Lucas-ek elkarrizketa batean argi adierazi zuen; *“Europar Batasuna (...) Zuzenbide Estatuaren nozioa buru duen proiektu politikoa bada, argi eta garbi esan behar da krisi honetan hondoratu den lehen gauza giza eskubideak direla, ez soilik besteen giza eskubideak, baita giza eskubideen errespetuaren kultura juridikoa ere”* (2016ko urtarrilak 29).

6. Erreferentziak

6.1. Bibliografia

Abrisketa, J. (2017). La dimensión externa del derecho de la Unión Europea en materia de refugio y asilo: Un examen desde la perspectiva del non-refoulement. *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, 56, 119-158. <https://doi.org/10.18042/cepc/rdce.56.04>

Arango, J. (2019). Eficacia frente a principios: Políticas de extrema dureza contra la inmigración y el asilo en Estados Unidos y Europa. *Immigrazioaren CIDOB urtekaria*, 2019, 34-49. <https://doi.org/10.24241/AnuarioCIDOBInmi.2019.34>

Arenas Hidalgo, N. (2021). Migraciones y asilo: Análisis y perspectivas: el principio de solidaridad y reparto equitativo de la responsabilidad entre estados en la política europea de asilo: la conformación de la reubicación en un contexto de crisis. *Revista española de derecho internacional*, 73(2), 21-36. <https://doi.org/10.17103/redi.73.2.2021.1a.01>

Barbero, I. (2021). Los Centros de Atención Temporal de extranjeros como nuevo modelo de control migratorio: Situación actual, (des)regulación jurídica y mecanismos de control de derechos y garantías. *DERECHOS Y LIBERTADES: Revista de Filosofía del Derecho y derechos humanos*, 45, Article 45. <https://doi.org/10.20318/dyl.2021.6108>

Bermejo Casado, R. (2010). El proceso de institucionalización de la cooperación en la gestión operativa de las fronteras externas de la UE. *Revista CIDOB d'Afers Internacionals*, 91, 29-62.

Campesi, G. (2020). *Normalizing the «hotspot approach»? An analysis of the Commission's most recent proposals. 20 Year Anniversary of the Tampere Programme: Europeanisation Dynamics of the EU Area of Freedom, Security and Justice*, 93-104. <https://doi.org/10.2870/66646>

Cardini, O., & Archain, S. (2021). L'ineffettività del diritto d'asilo alla frontiera. Fra prassi informali e diritti negati. *L'Altro Diritto*, 5, 6-55.

Carrera, S., Colombi, D., & Cortinovia, R. (2023ko otsailak 24). Policing Search and Rescue NGOs in the Mediterranean. [CEPS](https://www.ceps.eu).

Cimmino, E. (2006). Devianza minorile: Immigrati e la problematica della risposta

carceraria. L'altro diritto.

- Comazzetto, G. (2020ko maiatzak 25). Lo stato di eccezione nell'ordinamento italiano. Riflessioni a partire dalle misure di contenimento dell'emergenza epidemiologica da CoViD-19. *BioLaw Journal - Rivista di BioDiritto*, 35-42. <https://doi.org/10.15168/2284-4503-558>
- Cuttitta, P. (2019). *Search and Rescue at sea, non-governmental organisations and the principles of the EU's external action. 20 Year Anniversary of the Tampere Programme: Europeanisation Dynamics of the EU Area of Freedom, Security and Justice*, 123-132. <https://doi.org/10.2870/66646>
- D'Angelo, A. (2018). Flujos migratorios en el Mediterráneo: Cifras, políticas y múltiples crisis. *Immigrazioaren CIDOB urtekaria*, 2018, 30-46. <https://doi.org/10.24241/AnuarioCIDOBInmi.2018.30>
- De Lucas, J. (2015). *Mediterráneo: El naufragio de Europa*. Tirant Humanidades.
- De Lucas, J. (2019). Las ONG frente al dictado de Caín: El debate sobre la lucha contra la muerte en el Mediterráneo. *Cuadernos del Mediterráneo*, 28-29, 305-310.
- Del Valle, A. (2020a). Sobre la inviabilidad del modelo de fronteras exteriores europeas en el Mediterráneo. *Spanish Yearbook of International Law*, 1(72), 187-196. <https://doi.org/10.17103/redi.72.1.2020.2a.01>
- Del Valle, A. (2020b). Inmigración, derechos humanos y modelo europeo de fronteras: Propuestas conceptuales sobre «extraterritorialidad», «desterritorialidad» y «externalización» de controles y flujos migratorios. *Revista de Estudios Jurídicos y Criminológicos*, 2, Article 2.
- Donadio, G., & Barbero, I. (2019). La externalización interna de las fronteras en el control migratorio en la UE. *Revista CIDOB d 'Afers Internacionals*, 122, 137-162. <https://doi.org/10.24241/rcai.2019.122.2.137>
- Esteve, F. (2015). El rescate como nueva función europea en la vigilancia del Mediterráneo. *Revista CIDOB d 'Afers Internacionals*, 111.
- Esteve, F. (2017). The Search and Rescue tasks coordinated by the European border and coast guard agency (FRONTEX) regarding the surveillance of external maritime borders. *Paix et sécurité internationales*, 5, 93-116.
- Ferrajoli, L. (2019). Políticas contra los migrantes y crisis de la civilidad jurídica. *Crítica Penal y Poder*, 18, Article 18.

- Garcés, B. (2020ko martxoa). CIDOB - Cuatro años del acuerdo UE-Turquía. *CIDOB*, 617.
- Goig, J. M. (2017). La política común de inmigración en la Unión Europea en el sesenta aniversario de los Tratados de Roma (o la historia de un fracaso). *Revista de Derecho de la Unión Europea*, 32, Article 32.
- Guerra, D. (2018). La política migratoria común de la Unión Europea: Efectos políticos de su ausencia. *Revista chilena de derecho y ciencia política*, 66-91. <https://doi.org/10.7770/rchdcp-V9N2-art1820>
- Hellman, J. (2020). ¿Se encuentra la obligación internacional de rescate en declive ante las políticas estatales de “puertos cerrados”? *ACDI - Anuario Colombiano de Derecho Internacional*, 14(1). <https://doi.org/10.12804/revistas.urosario.edu.co/acdi/a.8427>
- Larrucea, J. R. de. (2019). La política migratoria en el Mediterráneo. Una explicación desde el Derecho Marítimo. *Crítica Penal y Poder*, 18, Article 18.
- López-Romero, M. P. (2006). *Política común de inmigración en la unión europea: Del tratado de Ámsterdam a la constitución europea*. 7, 87-101.
- Marquina de Saracho, C. (2020). Aproximación jurídica a las operaciones de salvamento y rescate por razones humanitarias realizadas en el Mediterraneo central.
- Martínez, M. (2019). La criminalización de la solidaridad. *Crítica Penal y Poder*, 18, 8-18.
- Olesti Rayo, A. (2008). Las políticas de la Unión Europea relativas al control en las fronteras, asilo e inmigración. *Revista de derecho constitucional europeo*, 10, 13-48.
- Penchaszadeh, A.-P., & Sferco, S. (2020). Philosophical-political Thoughts on the Criminalization of Solidarity Practices Towards Migrants and Refugees Today. The Case of Carola Rackete (2019). *Historia y Sociedad*, 39, 213-240. <https://doi.org/10.15446/hys.n39.82846>
- Pusterla, F. (2021). Legal Perspectives on Solidarity Crime in Italy. *International Migration*, 59(3), 79-95. <https://doi.org/10.1111/imig.12740>
- Regi, J. (2020). Las políticas de migración y asilo en la Unión Europea y sus problemas de aplicación en los Estados miembros. *Revista de Estudios en Seguridad Internacional*, 6(1), 57-77. <https://doi.org/10.18847/1.11.5>

- Santos, J. (2019). The European border and coast guard in the new regulation: Towards centralisation in border management. En S. Carrera, D. Curtin, & A. Geddes (Eds.), *20 year anniversary of the Tampere programme. Europeanisation dynamics of the EU area of freedom, security and justice* (pp. 67-80). European University Institute. <https://data.europa.eu/doi/10.2870/66646>
- Seoane, A. (2019). Rescate de personas en peligro en el Mediterráneo: Dificultades y consecuencias jurídicas [Gradu Amaierako Lana]. Universidade da Coruña. Facultade de Dereito.
- Soler, C. (2017). La guardia europea de fronteras y costas: ¿Un avance respecto a Frontex? Una valoración provisional. *Revista Electrónica de Estudios Internacionales*, 34. <https://doi.org/10.17103/reei.34.05>
- Tsourdi, E. (2016). Bottom-up salvation?: from practical cooperation towards joint implementation through the European Asylum Support Office. *European Papers*, 1(3), 997-1031. <https://doi.org/10.15166/2499-8249/115>
- Vassallo, F. (2023ko otsailak 3). Approccio Hotspot in Italia ed “habeas corpus” delle persone migranti.
- Zapata-Barrero, R. (2012). Teoría Política de la Frontera y la movilidad humana. *Revista Española de Ciencia Política*, 39-66.

6.2 Araudia

6.2.1 Nazioarteko Zuzenbidea

Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioa, Genevan 1951ko uztailaren 28an egina.

Itsas Bilaketa eta Salbamenduari buruzko 1979ko Nazioarteko Hitzarmena (SAR Hitzarmena). Hanburgon egina 1979ko apirilaren 27an.

Itsasoan Giza Bizitzaren Segurtasunerako Nazioarteko Hitzarmena (SOLAS), Londresen egina 1974ko azaroaren 1an.

Itsasoan Giza Bizitzaren Segurtasunerako Nazioarteko Hitzarmenari buruzko 1988ko Protokoloa, Londresen egina 1988ko azaroaren 11n.

Itsas Salbamenduari buruzko Nazioarteko Hitzarmena, 1989koa, Londresen egina 1989ko apirilaren 28an.

Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa (CONVEMAR), Montego Bayn egina 1982ko abenduaren 10ean.

Lurreko, itsasoko eta aireko migratzaileen legez kontrako trafikoaren aurkako protokoloa, Nazio Batuen Delinkuentzia Antolatu Transnazionalaren aurkako Konbentzioa osatzen duena, New Yorken egina 2000ko azaroaren 15ean.

MSC.155 (78) Ebazpena. 1979ko Itsas Bilaketa eta Salbamenduari buruzko Nazioarteko Hitzarmenari zuzenketak egitea, 2004ko maiatzaren 20an onartua, Batzordearen 78. bilkuraldia (5. eranskina).

MSC.70 (69) Ebazpena. 1979ko Itsas Bilaketa eta Salbamenduari buruzko Nazioarteko Hitzarmenari zuzenketak egitea, 1998ko maiatzaren 18an onartua.

MSC.167 (78) Ebazpena. Itsasoan erreskatatutako pertsonekin jarduteko jarraibideak, 2004ko maiatzaren 20an onartua, Batzordearen 78. bilkura-aldian (34. eranskina).

Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Hitzarmena, New Yorken egina 1984ko abenduaren 10ean.

6.2.2 Europar Batasuneko Araudia

Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna, Nizan egina, 2000ko apirilaren 7an. Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, C 364/01, 2000ko abenduaren 18koa.

Europar Batasunaren Tratatuaren bertsio kontsolidatua, Maastricht-en egina, 1992ko otsailaren 7an. Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, C 202, 2016ko ekainaren 7koa.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren bertsio kontsolidatua, Erroman egina 1957ko martxoaren 25ean. Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, C 202, 2016ko ekainaren 7koa.

Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmena, Erroman egina 1950eko azaroaren 4an, eta 1963ko maiatzaren 6ko eta 1966ko urtarrilaren 20ko 3. eta 5. protokolo gehigarriek zuzendua, hurrenez hurren.

Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmenaren 4. protokoloa, zenbait eskubide eta askatasun aitortzen dituena, hitzarmenean eta hitzarmenaren lehenengo protokolo gehigarrian agertzen direnez gain.

(Europako Kontseiluaren 46. hitzarmena, Strasburgon egina 1963ko irailaren 16an).

Kontseilu Europarrak 2016ko irailak 16an egindako Bratislavako Adierazpena.

Kontseiluaren 2002/946/JAI Esparru Erabakia, 2002ko azaroaren 28koa, sarrera, zirkulazio eta egonaldi irregularretarako laguntzaren errepresiorako esparru penala indartzera bideratua. Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala L 328/1, 2002ko abenduaren 5a.

Kontseiluaren 2002/90 (EB) Zuzentaraua, 2002ko azaroaren 28koa, sarrera, zirkulazio eta egonaldi irregularretarako laguntza definitzekoa. Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala L 328/17, 2002ko abenduaren 5a.

604/2013 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko ekainaren 26koa, hirugarren herrialde bateko nazional batek edo aberri gabe batek estatu kide batean aurkeztutako nazioarteko babes-eskaera aztertzeko estatu kidea zehazteko irizpideak eta mekanismoak ezartzen dituen. Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala L 180/31, 2013ko ekainaren 29a.

656/2014 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko maiatzaren 15koa, kanpoko itsas mugak zaintzeko arauak ezartzen dituen, Europar Batasuneko estatu kideetako Kanpo Mugetan Lankidetzaren Operatiboa Kudeatzeko Europako Agentziak koordinatutako lankidetzaren operatiboaren esparruan. Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala L 189/93, 2014ko ekainaren 27a.

2016/1624 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko irailaren 14koa, Mugen eta Kostaldean Europako Guardiari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/399 (EB) Erregelamendua aldatzen duena eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 863/2007 (EE) Erregelamendua, Kontseiluaren 2007/2004 (EE) Erregelamendua eta Kontseiluaren 2005/267/EE Erabakia indargabetzen dituen. Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala L 251/1, 2016ko irailak 16a.

6.2.3 Italiako barne araudia

Comunicato Guardia Costiera d'Italia. Roma, 6 maggio 2020. (Italiako kostazainen komunikatua. Erroma, 2020ko maiatzak 6).

Costituzione Italiana. (Gazzetta Ufficiale n. 298, 27 dicembre 1947). (Italiako Konstituzioa. Italiako Aldizkari Ofiziala, 298. zbk., 1947ko abenduak 27)

Decreto-Legge 2 gennaio 2023 n. 1. Disposizioni urgenti per la gestione dei flussi migratori. (Gazzetta Ufficiale n. 1, 2 gennaio 2023). (2023ko urtarrilaren 2ko Lege Dekretua. 1. zbk. Migrazio-fluxuak kudeatzeko premiazko xedapenak. Italiako Aldizkari Ofiziala 1. zbk., 2023ko urtarrilaren 2).

Decreto-Legge 10 luglio 2018 n. 84. Disposizioni urgenti per la cessione di unità navali italiane a supporto della Guardia costiera del Ministero della difesa e degli organi per la sicurezza costiera del Ministero dell'interno libici. (Gazzetta Ufficiale n. 158, 10 luglio 2018). (2018ko uztailaren 10eko Lege Dekretua, 84. zbk. Libiako Defentsa Ministerioaren Kostako Guardiari eta Barne Arazoetako Ministerioaren kostaldeko segurtasun-organoei laguntzeko ontzi italiarrak lagatzeko presako xedapenak. Italiako Aldizkari Ofiziala 158. zbk., 2018ko uztailak 10).

Decreto Legislativo 25 luglio 1998, n. 286. *Testo unico delle disposizioni concernenti la disciplina dell'immigrazione e norme sulla condizione dello straniero (Gazzetta Ufficiale n.191, 18 agosto 1998)* (1998ko uztailaren 25eko Lege Dekretua, 286. zbk. Immigrazioari eta atzerritarraren egoerari buruzko xedapenen testu bakarra. Italiako Aldizkari Ofiziala 191. zbk., 1998ko abustuak 18).

Decreto Legislativo 2 gennaio 2018, n. 224. Codice della protezione civile. (Gazzetta Ufficiale n.17, 22 gennaio 2018). (2018ko urtarrilaren 2ko Legegintzako Dekretua, 224- Babes Zibileko Kodea. Italiako Aldizkari Ofiziala 17. zbk., 2018ko urtarrilak 22)

Legge 11 dicembre 1984, n. 839. (Gazzetta Ufficiale n. 345, 17 dicembre 1984) (1984ko abenduak 11ko Legea, 839.zbk. 1984ko abenduak 17ko Italiako Aldizkari Ofiziala, 345. zbk.).

Piano Nazionale per la Ricerca ed il Salvataggio in Mare. Ministero dei trasporti e della navigazione, 1996 novembre 25. (Itsasoan Bilatzeko eta Erreskatatzeko Plan Nazionala. Italiako garraio- eta nabigazio-ministerioa, 1996ko azaroak 25).

Regio Decreto 30 marzo 1942 , n. 327. Codice della navigazione. (Gazzetta Ufficiale n. 327, 30 marzo 1942). (1942ko martxoaren 30eko Errege Dekretua, 327. zbk. Nabigazio-kodea. Italiako Aldizkari Ofiziala 327. zbk., 1942ko martxoaren 30a)

6.2.4 Espainiako barne araudia

Espainiako Erresumaren eta Marokoko Erresumaren arteko Akordioaren behin-behineko aplikazioa. Akordio hori pertsonen zirkulazioari, igarotzeari eta

legez kanpo sartutako atzerritarrak berriz hartzeari buruzkoa da, eta Madrilen sinatu zen 1992ko otsailaren 13an. (1992ko apirilaren 25eko EAO, 100. zbk.).

Espainiako Konstituzioa. (1978ko abenduaren 29ko EAO, 311. zk.).

4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa. (2000ko urtarrilaren 12ko EAO, 10. zk.).

10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa. (EAO, 281. zk., 1995eko azaroaren 24koa).

Merkataritza Itsasketako zuzendari nagusiak «Open Arms» ontziari bidalitako gutuna. Sustapen Ministerioa. Madril, 2019ko ekainaren 27.

10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa. (EAO, 281. zk., 1995eko azaroaren 24koa).

2000ko urtarrilaren 18ko Agindua, Itsasontziak Abian Jartzeari buruzko Erregelamendua onartzen duena. (2000ko otsailaren 2ko EAO, 28. zk.).

2/2011 Legegintzako Errege Dekretua, irailaren 5koa, Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. (2011ko urriaren 20ko EAO, 253. zbk.).

14/2014 Legea, uztailaren 24koa, Itsas Nabigazioari buruzkoa. (2014ko uztailaren 25eko EAO, 180. zk.).

6.3 Jurisprudentzia

Auzitegi Gorenaren urtarrilaren 15eko 13/2018 Sententzia

Auzitegi Gorenaren 2002ko uztailaren 8ko 1312-2002 Sententzia

Auzitegi Nazionalaren 2007ko abenduak 12ko 5394/2007 Sententzia

Italiako Auzitegi Gorenaren epaia (“La Corte Suprema di Cassazione”), 2020ko urtarrilak 16koa. Caso Sea Watch.

Justizia Auzitegiaren epaia (Sala Handia), 2017ko irailaren 6koa. Eslovakiako Errepublika (C-643/15) eta Hungaria (C-647/15)/Europar Batasuneko Kontseilua. Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala C 374/4, 2017ko azaroaren 6a.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia (Sala Handia). Gaia: Hirsi Jamaa eta beste batzuk Italiaren aurka, 2012ko otsailaren 23koa. [27765/09 Sententzia](#).

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (Lehenengo atala) epaia. Gaia: J.A. eta beste batzuk Italiaren aurka, 2023ko martxoaren 30ekoa. [21329/18 Sententzia](#).

Jugoslavia ohiaren Nazioarteko Zigor Auzitegia, 1998ko abenduak 10ekoa. Fiscal v. Anto Furundzija. [IT-95-17/1-T Gaia](#).

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia (bigarren atala). Gaia: Sharifi Jamaa eta beste batzuk Italiaren eta Greziaren aurka, 2014ko urriaren 21ekoa. [16643/09 Sententzia](#).

6.4 Bestelako erreferentziak

6.4.1 Erakundeetako eta GKEen txostenak

Bachelet, M. (2022ko urriak 20). [Hearing at the Italian Senate's Extraordinary Commission against intolerance, racism, anti-Semitism and incitement to hatred and violence](#). OHCHR.

CEAR. (2021). [Externalización de fronteras España-Marruecos](#)

CEAR. (2016ko azaroa). [Marruecos: Desprotección y vulneración de derechos de las personas migrantes y refugiadas a las puertas de Europa](#).

Greek Council for Refugees (Errefuxiatuen Greziako Kontseilua). (2022ko maiatzak 30). [Reception and identification procedure](#). Asylum Information Database | European Council on Refugees and Exiles.

Human Rights Watch. (2016ko martxoak 3). [Q&A: The EU-Turkey Deal on Migration and Refugees](#). Human Rights Watch.

IOM. (2014). [Fatal Journeys Tracking Lives Lost during Migration 2014](#). 85-107.

IOM. (2017ko azaroak 1). [Evolución en el Mediterráneo](#). Migrazioarako Nazioarteko Erakundea.

IOM (Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea). (2015eko martxoak 27). [La OIM elogia la operación de salvamento Mare Nostrum de Italia: "No es un factor de atracción para los migrantes"](#). Migrazioarako Nazioarteko Erakundea.

- IOM (Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea). (2018ko urriak 5). Se contabilizan 84.345 llegadas y 1.777 muertes en el Mediterráneo en 2018. Migrazioarako Nazioarteko Erakundea.
- López, J. F. (2023ko urtarrilak 18). Debates—Criminalización de la ayuda humanitaria, incluidas las operaciones de búsqueda y salvamento (debate)—Miércoles 18 de enero de 2023. Parlamento Europeo.
- Mijatović, D. (2023). Commissioner for Human Rights’ letter addressed to the Minister of the Interior of Italy.
- Nazio Batuak. (2020ko abendua). Delincuencia marítima: Manual para los profesionales de la justicia penal.
- Nazio Batuak. (2016ko abenduak 13). “Detained and Dehumanised” Report on human rights abuses against migrants in Libya.
- Nazioarteko Amnistia. (2014). Sentencia del Tribunal Europeo condena las devoluciones automáticas e indiscriminadas de Italia a Grecia (declaración pública conjunta).
- Nazioarteko Amnistia. (2018). Informe 2017/18 Amnistía Internacional: La situación de los derechos humanos en el mundo.
- Nazioarteko Amnistia. (2019ko urtarrilak 17). A la deriva en el Mediterráneo. Amnistía Internacional.
- Nazioarteko Amnistia. (2023ko otsailak 1). Italy: Withdraw measures that hinder the work of search and rescue NGOs and increase the risk of drownings. Amnistía Internacional.
- Nazioarteko Amnistia. (2019ko otsailak 21). Leyes concebidas para silenciar: Ataques a las organizaciones de la sociedad civil. Amnistía Internacional.
- Nazioarteko Amnistia. (2014ko urriak 31). Tritón no sustituye a Mare Nostrum a la hora de salvar vidas.
- UNHCR. (2020ko iraila). Posición del ACNUR sobre la designación de Libia como tercer país seguro y lugar seguro a los efectos del desembarco de personas rescatadas en el mar.
- UNHCR. (2016ko ekainak 20). Tendencias Globales: Desplazamiento Forzado en 2015. 32-54.

6.4.2 Komunikabideetako argitalpenak

- Caballero, D. (2018ko apirilak 4). «Las tragedias de pateras no se viven; se sufren hasta en el alma». ABC.
- Camilli, A. (2018ko irailak 9). Decreto Salvini su immigrazione e sicurezza: Cosa prevede. Internazionale.
- EITB. (2019ko ekainak 12). El Defensor del Pueblo da la razón al «Aita Mari» por el bloqueo del Gobierno español. EITB.
- El Mundo. (2019ko ekainak 12). El Defensor del Pueblo avala que el Aita Mari ayude en el Mediterráneo a refugiados. El Mundo.
- Fernández-Savater, A. (2016ko urtarrilak 29). Javier de Lucas: “La Unión Europea está, de facto, en una situación de guerra contra los inmigrantes” [ElDiario.es]
- Guterres, A. (2018ko uztailak 12). Guterres: El pacto sobre migración es una muestra de lo que puede lograr el “multilateralismo” | Noticias ONU.
- Hernandez, J. (2018ko maiatzak 17). La criminalización de la solidaridad en el Mediterráneo. La tinta.
- Liboreiro, J. (2023ko otsailak 6). «Es una vergüenza», las ONG italianas contra el código de conducta. Euronews.
- Manchon, F. (2020). El Pacto sobre Migración y Asilo ¿una nueva oportunidad para Europa? 152.
- Palm, A. (2017ko urriak 2). The Italy-Libya Memorandum of Understanding: The baseline of a policy approach aimed at closing all doors to Europe? – EU Immigration and Asylum Law and Policy.
- Pusterla, M. (2019ko ekainak 29). Los CPR italianos no son cárceles, son algo peor. www.elsaltodiario.com.
- Scarcia, L. (2020ko martxoak 25). Mezzo secolo di accoglienza. La normativa.
- Tori, M. (2017ko maiatzak 5). La acusación de un fiscal italiano contra las ONG de rescate de refugiados da alas a los xenófobos. elDiario.es.